


ARRASATE

P R E S S

1999ko
Ekainak 4
454. zenb.




25 urtez ikerkuntzan

IKUSPEGIA: IKER BARANDIARAN • KIROLAK: ESKORIATZA-ARRASATE KROSA
EUREN IKUSPUNTUTIK: SARO MANRIQUE • KANPOAN BIZI: PEDRO M. AXPE



EA
eusko
alkartasuna

EAJ
PNV



Arrasate
zuk nahi duzun herria.

Jose María Loiti

Amaia Larrañaga

Irakasleak edo Herentzia kontuak

Ziur nago guraso aproposaren agiria lortzeko pasatu beharreko oztopoak asko izango direla, baina gaur egungo gizarte honetan bereziki, ez da bat ere erraza haurra izatea. Are gutxiago, ondorioz, gazte izatea.



Iker Barandiaran

Helduen bizitza erritmoak eta gaur egungo baloreek haurren heziketa eta bizitza guztia baldintzatzen dituzte. Nahiz eta ezin aholkurik eman guraso gisa, haurren eta gaztetxo-en bizipenak "hurbi-letik" jarraitu ditut eta balorazio txiki hau egitera ausartu naiz.

Garai batzuetako haurrek, ikastetxeetatik irten bezain laster, arratsalde osoa igarotzen zuten kalean jolasten. Gaur egun, ordea, askok ez

dute egunean zehar ia ikasgelaz kanpoko etenaldi-rik, gaueko kajatonta irensteaz gain; hau da, hainbat ikastaro "partikular", etabarretara joan behar izaten dute. Badirudi hauei oso txikitatik erakutsi nahi zaiela astegunak lanegunak direla. Helduok daramagun bizimodu estresantea transmititu guran ote gabiltza?

Eskolatik ingelesera, ingelesetik solfeora... Guraso gehienek helburua haurrak prestatzea den arren, ez ote dira gehiegikeriatan jausten?

Gainera, bailara honetan asko dira etxetik kanpo lan egiten duten bikoteak, eta era horretara umeak "prestatzeaz" gain, gurasoek argi dakiten lekuetan "entretenu-ta" egongo diren

ziurtasuna dute.

Ez da errua haurrei botatzearen, baina ume askok etxeko berotasuna, gurasoen hurbiltasuna eta, noski, askatasun handiagoa sentitzen dute faltan. Honen ordez, eta bereziki gizartearen eredu zein telezuzendutako baloreen erruz, guraso asko umeak materialismoaren bitartez asetzen saiatuko dira, hau da, hauei denetatik erosten.

Hau bukaezineko gorpila da, umeak honetara ohitu baititu gizarteak, hori eskatzera; eta beraien balore eta beharrak honela landuko baitituzte.

Ez diegu umei erositakoak edo sofistikatuak ez diren jostailuak erabiltzen edo onartzen erakutsi (eta ez da erraza, aipatutako arrazoiengatik), hauek gabe jolasten edo beren kasa irudimena lantzen laguntzen. Hau, besterik gabe, izugarritzko aurrerapausoa litzateke.

Hasieran aipatutakoa errepika dezaket, ezin dela orokorrean hitz egin eta baita La Pollaren kanta baten hitzak ere oroimenera datozkidalda.

"Guraso gehienek helburua haurrak prestatzea den arren, ez ote dira gehiegikeriatan jausten?"

"Esportazioan baino, nahiago dugu geure enpresek barne harremanetan erabil dezaten euskara"

Juan Luis Arexolaleiba

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Orotara kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetaritza:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arroja. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñarain (Tel.: 943 71 23 90). **Disenua:** Maddi Trubuelo. **Astoburuetako berriemak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udako Gazteria Sala, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28).
©ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko kontertatua.**
Inprimategia: Gertu Coop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldi-zikloaren adieraztako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo. Argazkiak: Ikerian.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

1.025
bilioi pezetara iritsiko
dira MCCren salmentak

Lehenengo aldiz sortu zene-tik, MCCren salmentak bilioi pezetaren marka gaindituko dute 99an, iaz baino %15 gehiago. Inbertsioak, aldiz, 88.000 milioioak izango dira, aurrekoan baino %24 gehiago. Aurten, gainera, 3.900 lanpostu sortzeko asmoa dute.

ITURRI ONETIK

Badator DVren Telebista

Euskaltelek gero eta landuagoa du EAEn kablea sartzeko egitasmoa. Horren haritik, egun hauetan Canal 21 izena duen eskaintza jaso dugu askok etxean.

Gipuzkoako herri guztietan Tele Donosti eskainiko du Euskaltelek, beste telebista kanale askoren artean. Arrasaten ere Donostiako telebista ikusi ahal izango da.

Correo taldeak, DV egunkariaren bitartez, zerikusi handia du Tele Donostin. Euskaltelekin egin duen hitzarmen honen bidez, Gipuzkoa osorako telebista edukitzea lor lezake. Izan ere, gaur egun Tele Donosti dena, bihar-etzi Tele Gipuzkoa bihur liteke, bailaraz bailarako des-koneksioak eginez: Goierrikoa, Deba bailarakoa, Urolakoa, etab. DVren telebista, beraz, Euskaltelen haritik etorriko zaigu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 4**
• Gauez eta egunez: Español, Iturriotz
- Larunbata, 5**
• Gauez eta egunez: Korkuera, Musakola
- Igandea, 6**
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin
- Astelehena, 7**
• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Astearte, 8**
• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 9**
• Gauez eta egunez: Ruiz, Maala
- Osteguna, 10**
• Gauez eta egunez: Morales, San Andres

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara 943 76 55 76
- DYA**
Antzuola 943 78 71 57
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdiak) 943 03 53 00
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 53 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
• Fax zenbakia: 943 03 05 14
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udalizaingoa**
Onati 943 78 04 11
Bergara 943 77 91 06
Arrasate 943 79 14 39
Aretxabaleta 943 79 10 52
Eskoriatza 943 71 44 07
- Ertzaintza**
Arrasate 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
..... 943 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**
Monterron 943 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia 943 79 58 77

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA

Ukatu ezinezkoa da aurre-rapauso garrantzitsuak eman ditugula euskararen normalizazioan irakaskuntzaren arloan, eta denok ezagutzen ditugu.

Begibistakoa da, era berean, gurasoen sentsibilizazioaren esparruan ere aitzinera egin dugula, gero eta guraso gehiago baitira beren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren hautua egiten dutenak. Baina ukatu ezinezkoa da, baita ere, hutsune handiak ditugula euskarazko irakaskuntzan eta orain hogeit urte genituen perspektibak ez direla bete.

Lehen hezkuntzari dago-kionez, ereduaren sistema horrek itogin handiak ditu, A ereduak ez du euskalduntzen eta B eredu gehienek ere ez. Nola euskaldunduko dute, D ereduko ikastetxeetan ere Normalizaziorako Plan Integralak edo Euskaraz Bizi bezalako egitasmoak abian jarri beharra badago, eskola hori euskaraz biziko bada, eta eskola horietako ikasleek euskara normaltasun eta jarioz hitz egingo badute.

Badakigu eskolak soilik ezin duela euskararen normalizazioaren zama guztia jasan; eskolaz gain, beste esparru asko daudela landu beharrekoak, baina badakigu, baita ere, eskolak garrantzi handia duela euskalduntzeko prozesuan. Ereduena, beraz, oso ki birplanteatu beharrekoa da eta ez adabakiak jartzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak A ereduarekin datorren ikasturterako egin behar duen bezala.

Ezeresan beharrik ez dago G ereduaz, jakina, ezta Derri-gorrezko Hezkuntzaren Ondorengo irakaskuntzan ditugun arazo larriez ere, arazoak, bai material egokiaren aldetik, baita, eta nagusiki, irakasle asko dagoelako euskaraz ez dakiena.

Pisuzko gaia gogoetarako, eta ez da kasualitatea sortu berria den Guneak eztabaida-

rako lehenengo gai bezala horixe hautatu izana.

Hau guztia kontuan hartuta, EHE, IA, Ikasbatuaz, LAB eta Sortzenek maiatzean zehar eta ekaina bitartean antolatutako Euskal-Irakaskuntzaren aldeko nazio ekimenetan parte hartzera gonbidatzen ditugu herritar guztiak, denon artean eraiki dezagun benetako Hezkuntza Sistema Euskalduna.

Ikasbatuaz, Elkarte

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M

MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

ALDEKO APOSTUA

ERRENTA SEGURUA



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera plural bezain osagarri
honako ikasketak egiteko

1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATURA ETA OSASUN ZIENTZIAK
 - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
 - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak ingeniartzarako konbaldatuta.

2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOHKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

Harremanetarako
pertsonak



ALMEN
IKASTOLA

Josebe
Murumendiaraz 943 71 49 07

ARRASATEKO
IKASTOLA

San F. Xabier Margari
Gorrotxategi 943 79 64 79

San Viator Idoia Urrutia 943 71 24 90



Euskal Eskola Publikoa Eraikitzen

Zure etorkizuna eraikitzen



Batxilergo guztiak

- Natura eta Osasun-Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
- Teknologia Batxilergoa

Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako bideak

Hizkuntzak

Eskaintza zabala:

- Ingelesa
- Alemaniera
- Frantsesa
- Italiara

Modalitate eta Aukerako ikasgaietan oso eskaintza zabala

- Elektroteknia
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua
- Mekanika
- Ekonomia eta enpresa antolaketa
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna
- Laborategi teknikak
- Psikologia
- Antropologia

Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Soldadura eta galdaragintza
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

Goi Mailako Heziketa Zikloak


- Galdaketa eta pulbimetalurgiaren bidezko produkzioa

Aurre-inskripzioa

Ekainaren 1etik 9ra

Matrikula

Uztailaren 1etik 9ra



BERRI GEHIAGORAKO



ARRASATE: 943 79 83 00 / 943 79 44 47
ARETXABAETA: 943 79 79 00 / 943 79 79 43

 arrasate
aretxabaeta
INSTITUTUA


Zer egingo zenuke alkate bazina?

Udal hauteskundeetako kanpainaren erdian gaude dagoeneko.



Maria Dolores Jauregi
(58 urte)
Erretiratua

Gazteentzako toki bat jarriko nuke, ez baitaukat elkarrezko tokirik. Apartamentu merkeak ere egingo nituzke.



German Gallastegi
(25 urte)
Langilea

Guztion artean gauzak aurrera aterako nituzke.




Karlos Olabe
(62 urte)
Erretiratua

Errepideetan gaizki utzitako autoekin zerbait egingo nuke.



Edurne Mujika
(31 urte)
Irakaslea

Besteak beste, euskararen alde egingo nuke lan, euskararen aldeko ekimenak bulztatuz.



Manuel Perez
(47 urte)
Langilea

Kalean gaizki utzitako autoei irtenbidea aurkitzen saiatuko nintzateke.




Julia Hernandez
(33 urte)
Langilea

Herritarren ongizatea biltuko nuke. Kaleak garbi gordetako nituzte eta guztiek lana izan dezaten saiatu.



Julia Aguado
(62 urte)
Erretiratua

Haurrentzako jolastokiak jarriko nituzke, eta gazteentzako eta nagusientzako egonlekuak.



Karlos Zabala
(22 urte)
Langilea

Errepideetako segurtasuna areagotuko nuke, batez ere gazteen artean alkohol tasa kontrolatuz.

Sagardotegia




ITURROIETA

Astelehenetik asteazkenera enkarguz.
Ostegunetik igandera zabalik

MENU ESKAINTZARIK ZABALENA AUKERAN

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO



Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar

MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxes: 943 77 11 20

4

ostirala

■ ZINEA

La trampa, Alai zineman, arratsaldeko 22:00etan.

■ EH-REN

MITIN-JAIALDIA

Arrasateko Euskal Herri-tarrok taldeak mitin-jaialdia egingo du Sebero Altuben, 19:30ean. Xabier Zubizarreta izango da hizlari eta ondoren bertsolariak, trikitilariak eta luntxa etorriko dira.

■ GARAGARDO FESTA

Arrasate Errugbi Taldeak antolatuta, Garagardoaren Lehen Festa Handia egingo da plazan, 19:00etatik goizaldera bitartean. Alemaniako jaki eta edariak dastatzeko aukera izango da.

5

larunbata

■ ZINEA

La trampa, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

■ IRTEERA

MENDI BIZIKLETAN

Besaideren Gazte Ekin-tza Taldeak irteera antolatu du Urbasara, mendi bizikletan. Goizeko 08:30ean aterako da, Garibai kaletik.

■ ORGANO EMALE
IZAN NAHI DUZU?

Bihotzeko Transplantea izan dutenen Euskal Herriko Elkartek eta Giltzurruneko Gaixoen Elkartek gonbita egiten diete organoak eman nahi dituzten guztiei, Portaloian jarriko duten eskaintza orriak betetzeko. Mahaia goizeko 10:30etik 20:00etara jarriko da.

■ MITINA IRUÑEAN

EHk deia egin du Iruñean egingo den mitinera joateko. Autobusa Garibai kaletik aterako da, 15:30ean.

■ ABESBATZEN
EMANALDIA

Goikobaluren 10. urteurrena ospatzeko, kontzertua antolatu dute San Joan parro-kian 20:00etan. Goikobalu Txiki eta Bergarako Orfeo-i Gaztea arituko dira.

■ CAMERATA
ORKESTRA

Mondragon Camerata Orkestrak emanaldia eskainiko du San Frantzisko elizan 20:00etan.

■ ANTZERKIA AMAIAN

Yllana taldeak "666" antzezlan eskainiko du Amaia antzokian 22:30ean. Sarrera 1.000 pta kostako da (gazte txartelarekin, 800 pta).

■ KONTZERTUA
JAM ARETOAN

Nuevo Catecismo Católico, Sr No eta *Factoría 77* taldeek kontzertua eskainiko dute Bergarako Jam aretoan, gaueko 22:00etan. Sarrera 1.300 pta kostako da, hantxe erosiz gero.

■ MENDI IRTEERA

Besaide Mendizale elkar-teak Aulesti-Ilntzar (Bizkaia) mendi irteera antolatu du. Autobusa Garibai kaletik aterako da, goizeko 07:00etan.

■ IBILALDIA 99

Elorrioren izango da aur-tengo Ibilaldia. Debagunek, Deba Garaiko Euskara Elkar-teen Guneak, autobusa jarri du hara joateko. Goizeko 10:00etan aterako da, Gari-baitik.

■ ESKORIATZA-
ARRASATE HERRI KROSA

Eskoriatza-Arrasate herri krosaren VII aldia 12:00etan hasiko da. Eskoriatzara joateko, autobusak izango dira, Garibaitik irtenda, 11:30ak arte.

7

astelehena

■ ZINEA

La trampa, Alai zineman, arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ TXISTU KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko Txistu bandak, txistu emanaldia eskainiko du udabaltza aretoan, 19:30ean.

6

igandea

■ ZINEA

La trampa, Alai zineman, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean eta 22:00etan.

UDAKO	
EVSKAL	
IKASTAROA	
DERIO	
BIZKAIA	

XXX. Derioko Udako Euskal Ikastaroa

30 urte euskarari

Derio, uztailaren 5etik 17ra

Matrikula epea zabalik

Labayru ikastegia
 Aretxabaleta 1, 1.
 48010 Bilbo
 Tel.: 94 443 76 84
 Faxe: 94 443 77 58
 E-mail:
 labayruidazk@euskalnet.net

8

asteartea

9

asteazkena

■ **ZINEA**

La trampa, Alai zinemaren arratsaldeko 19:00etan eta 21:30ean.

■ **SOKA KONTZERTUA**

Arrasate Musikaleko soka taldeak, soka emanaldia eskainiko du udalbaltza aretoan, 19:30ean.

■ **AKORDEOI KONTZERTUA**

Arrasate Musikaleko akordeoi taldeak emanaldia eskainiko du udalbaltza aretoan, 19:30ean.

■ **SOLDADUGAIEI DEIA**

Gipuzkoako erreklutamentu zentrotik jakinarazi dutenez, ikasten ari diren soldadugaiek 2. motako luzapena egin dezakete oraindik ere, udaletxean uztailaren 20a baino lehen.

San Juanak datozela eta, Udalak dei egin die soldaduska egiten ari diren arrasatear guztien senide eta adiskideei, haien helbidea eta nagusien izen-abizenak emateko. Udalak eskutitz bana bidaliko die jaietarako baimena eman diezaieten.

■ **TXATXILIPURDIREN UDALEKUAK**

1996an jaiotako neska-mutikoei Txatxilipurdik antolatutako Bilbin Boloka udalekuetan parte hartzeko aukera dute. Uztailaren 5etik 30era bitartean.

Haur Hezkuntzako 1., 2., eta 3. mailakoek Baby Lekuez gozatzeko aukera dute, uztailaren 5etik 16ra eta 19tik 30era. izena emateko Kutxako 0010359511 kontuan sartu beharko da dirua. Txikienei 6.300 pta eta bigarrenen, 5.600 pta, ekainaren 10a baino lehen.

■ **BAIETZ ARRRRA SARTU?**

Txatxilipurdik udalekuak antolatu ditu LHko 1. mailatik 6. mailara arteko ikasleentzat, uztailaren 5etik 16ra eta 19tik 30era bitartean. Izen ematea ekainaren 10a baino lehen, 6.800pta.n. Kutxa: 0010359511.

■ **UDALEKU ITXIAK**

Hamar-hamasei urte bitartekoentzako udaleku itxietara joateko eskaintza egin du Txatxilipurdik. Garaioko udalekuetara uztailaren 7tik 16era

(23.000 pta), Nafarroara uztailaren 8tik 18ra (25.500 pta), Kataluniara, uztailaren 16tik 25era (37.000 pta). Izena emateko Kutxako 0010359511 kontuan sartu dirua, ekainaren 10a baino lehen.

■ **EIBAR-GASTEIZ**

Eibar-Gasteiz autobidearen maketa ikusgai dago Harresi aretoan, ekainaren 15a arte.

■ **ANAGRAMA LEHIAKETA**

Hezibide Hezkuntza Elkarteko Lehen Hezkuntzako ikastolek kooperatiba bakarra sortuko dutela eta, anagrama lehiaketa antolatu dute. Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da, Lehen Hezkuntzako edozein ikastolatan.

■ **EZKONTZA AURREKO TOPAKETAK**

Ekainaren 7tik 11ra bitartean ezkontza aurreko topaketak egingo dira Eskoriatzan, Oñatin, Aretxabaletan eta Arrasaten. Topaketak abadetxean izango dira, 20:30ean.

■ **MARGO LEHIAKETA**

Familia eta Hezkuntza Zentruak Aire Zabaleko XVIII Margo Lehiaketa antolatu du, ekainaren 13rako. 305.000 pta daude jokoan. Egun horretan izango da lanen erakusketa.

■ **MUSAKOLAKO ASTOA**

Musakola auzoko alkatetzak bi kontu korronte jarri ditu astoaren monumentua ordaintzen laguntzeko. Euskadiko Kutxan: 3035 0055 10 055.1.03440.0. Kutxan: 2101 0097 46 012.2.68846.8

HARRIGARRIA!

Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon



SALOU

Hotel***
Pentsio osoa
Ekainaren 19tik 26ra
Prezioa pertsona bakoitzeko

24.675 PTA.tik HASITA

1 Unbea Agentea

VIAJES EROSKI BIDAIAK

Prezio Onak baino gehiago

LARUNBATETAN, 22:00AK ARTE EROSKI HIPERMERKATUETAKO BULEGOETAN

EROSKI BIDAIAK

USTEAK USTE

Presoen egoera

Arrasatek preso eta iheslari mordoa ditu.

Euskal Herriko espetxeetan batzuk, Espainia-koetan eta Frantziakoetan beste zenbait, eta munduan zehar barreiatuak mordska.

Bederatzi bat hilabete igaro dira ETAk su etena aldarrikatu zuenetik eta presoek dagoenez, hemen apenas aldatu da ezer. Egun hauetan bi arrasatearren egoera eskasa ezagutu dugu hobeto.

Enrike Letonak hamabi urte darama arazoekin ezkerreko orkatilan eta oraindik ez du operatzerik lortu. Batetik bestera bidaltzen dute, arazoa luzamendutan atzeratuz. Mutila, jakina, sutan dago eta minetan.

Pilar Mondragon ere gurutzebide latza pasatzen ari da Frantziako ospital batean, hamazazpi kilo gutxiagorekin eta beldurrez ikaratan Espainiaratuz gero zer nolakoak pasatu beharko dituen Espainiako poliziaren eskuetan.

Menian gaude, tregoa, askoz hobeto bizi gara orain bederatzi hilabete baino eta ordua da presoen egoera ere alda dadin, hobera.

Joxe Aranzabal



Danimarkara bisita

* Saro Manrique de Lara

Hezibideren ekimenez, talde honetako ikastetxeetako (Almen, CIM, San Frantzisko eta San Viatorreko) 10 irakaslek Danimarkako ikastetxeak ikusi eta ikaskuntza autonomiari buruzko ikastaro batean parte hartu zuten apirilaren 24tik 29ra.

Hona hemen bidaiaren helburu nagusiak:

- Ikaskuntza autonomiari buruzko ikuspegi hau teorikoki ezagutzen zuten irakasleei horren erabilera integrala ezagutaraztea.

- Danimarkako bisitak eta ikastaroa bukatu ondoren, ikaskuntza autonomiaz ikastetxeetan hausnarketa egiteko baliabideak ematea.

- Hezibideko ikastetxeetako irakasleei ikuspegi hau ezagutaraztea.

Goizetan sei ikastetxe ikusi genituen, Kopenhage eta inguruko hirietakoak.

Danimarkako hezkuntza sistema gurearen aldean nahikoa ezberdina dela ohartu ginen. ondorengoak azpimarratuko genituzke:

- Curriculum-a oso irekia da. Azken helburuak zehazten dira. Irakaslea ez dago hain presionatua programazioak bukatzeko eta eduki jakin batzuk emateko. Ikastetxe, irakasle eta ikasleek erabakitzen dute zer landuko duten irakasgai bakoitzean.

- Curriculum-a lantzeko orduan hain askatasun handia izateak ahalbidetu eta erraztu egiten du ikaskuntza autonomiaren bidean lan egitea.

- Derrigorrezko hezkuntza zazpi urterekin hasten da, nahiz eta haurren %90 sei urtetik aurrera joan ikastetxeetara.

- Arloka irakasle berbe-

“ Ingelesa ikasten 10 urterekin hasten dira eta 12 urterekin hirugarren hizkuntza ”

rak izaten dituzte bederatzi urtean zehar.

- Nota bidezko kalifikazioak zortzigarren urtean sartzen dira 14/15 urte dituztenean.

- Garrantzi handia ematen diote danierari, astean 6 ordu eskaintzen dizkiotelarik.

- Ingelesa ikasten hamar urterekin hasten dira: astean bi eskola, bakoitza 45 minutukoa. 12 urterekin astean beste eskola bat gehitu eta hirugarren hizkuntzaren aukera eskaintzen zaie (alemana edo frantsesa).

Arratsaldeetan irakasleak birziklatzeko Kopenhageko zentroan elkartzen ginen, Leni Dam eta Gert Gabrielsenek antolaturiko lantegietan parte hartzeko.

Bukatzeko, hona hemen esperientzia honetaz zenbait ondorio:

- Sendotu egin da ideia bat, hots, ikuspegi honek izan behar duela hezkuntza etapa guztien eta irakasgai gehien eragilea.

- Ikaskuntza autonomiaren ikuspegiak hausnarketa egiteko balio behar digu, ez bakarrik ikaskuntza/irakas-kuntza prozesuaz, baita beste gauza batzuei buruz ere: zer den ikastetxea, erabiltzen ditugun baliabide materialak, espazioaren ideia eta erabilera ikastetxeetan, etab.

Bidaia oso gogobetegarria izan da, parte hartzeko aukera izan dugunontzat.

* Hezibide



LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behe
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

Erdiko kale. 943 79 19 37



ILEA

Ferrerías. 943 79 87 62



Oraindik familia batzuek ezin dituzte beren aurrezkiak askatasunez erabili.

Aska itzazu zure aurrezkiak Aurrezki Ongizatearekin eta eraman Eskumuturreko Erloju bat dohainik.



Aurrezki Ongizatearekin, 50.000 familiak baino gehiagok askatasun osoz erabil ditzakete beren aurrezkiak. Baina, oraindik familia batzuek ez dakite Ongizate Aurrezki Eperako Aurrezkiaren modukoa dela, baina eperik gabe. Zure familiak ere Aurrezki Ongizatea behar duela gogorarazteko, Eskumuturreko Erlojua (emakume zein gizonezkoarena) oparituko dizugu, 400.000 pta.ko diru-sarrerara egiterakoan.

Eskaintza honek izakinak bukatu arte iraungo du • Pertsona bakoitzeko opari bat • Diru-sarrerak eskudirutan edo beste entitate bateko txeki bidez bakarrik egin daitezke eta promozioan eskatzen den gutxienezko kopurua beharko da • Informazio gehiagorako: Euskadiko Kutxaren sukurtsal sarea / 901 333 444



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena.

astea bi hitzetan

■ Urte ezinobea

MCCrentzat urte bikaina izan zen iazkoa. Pasa den ostegunean MCCko arduradunek adierazitakoaren arabera, salmentak ia 900 mila milioi pezetara iritsi ziren, aurreko urtean baino %22 gehiago. Honetaz gain, dibisio guztiek gora egin zuten, bai salmentetan eta baita irabazietan ere.

MCCk ia 7.732 lanpostu sortu zituen. Guztira 42.129 langile ari dira korporazioan. Horrez gain, hiru kooperatiba berri sartu dira MCCn: Consonni, Domusa eta Ecotecnia.

■ Bide hezkuntza

Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleak jo ta fuego ibili dira hamabi egunez errepideetako legeak ikasten. Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak eta Arrasateko Udaleko Hezkuntza batzordeak antolatu dute ikastaro hau, istripuak gutxitu nahian.

400 ikasletik gora hartu dute parte ikastaroan, San Frantzisko Xabier, La Merced, San Viator, Erguin eta San Andres ikastetxeetako ikasleak, hain zuzen ere.

■ EHE epaitegian

Arrasateko Euskal Herrian Euskaraz taldeak 170 sinadura baino gehiago eraman zituen Arrasateko epaitegi-rajotan den ostiralean. Azken egunotan batzen iobili diren sinadurak, hain zuzen ere. Udal hauteskundeetan euskararen erabilera areagotzea eskatu dute bildutako sinadurekin.

Izan ere, talde honen esanetan, alderdiek gero eta gutxiago erabiltzen dute euskara. Hori dela eta, zinegotzi euskaldunak aurkeztea ere eskatu diete alderdi politikoei.



■ Pilar Mondragonen alde

Ostiralean iluntzeko 19:30etan kale agerraldia izan zen Pilar Mondragon iheslari arrasatearraren egoera salatuzko. Pilar Mondragon gose greban dago apirilaren 26az geroztik. Izan ere, Frantzian betetzen ari zen espetxe zigorra bukatu eta Espainiaratuko dutelakoan dago. Pilar Mondragonen egoera nahiko eskasa da. 17 kilotik gora galdu ditu eta Fresneseko eritoxean dago.

Azken berrien arabera, sendagileek jarritako sueroari uko egin dio.



Kortabarria

onenean pasea da, ez dabil jendearen ahotan, baina bera izan zen bere garaian Espainiako futbol selekzioan parte hartzeari muzin egin zion bakanetakoa.

Aspaldikoa da Inaxio. 'X' bera ere inoiz ulertzeraz iritsi ez nintzen 'sh' grafiaz idazten zen egunkari erdaldunen sasoikoa. Gazteagoek jakin dezaten, Inaxio zen futbolari elegantea, lokatzarik lakatzenetan ere praka-zuri amaitzen zekienetakoa, begiak lagunei begiratuzko erabiltzen zituena. 'Libero' deitzen genion postuan jokatzeko zuen, libertatea oso urria zen garaian, eta futbolarietarik ohikoa duten epeltasunetik urrun agertzen zen bere herriari zegozkion arazoei aurre egiterakoan. Arestian aipaturiko muzinari, Iribarrekin batera ikurrina zelairatzearen ohorea hartu zuen bere bizkar".

ANDONI EGAÑA

Euskaldunon Egunkaria
1999.5.30

ETEO

ERDI MAILAKO IKASKETEN HEZIKETARAKO ESKAINTZA (1999-2000 IKASTURTEA)

- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN BATXILERGOA (G.G.Z.B.)
- HEZIKETA ZIKLOAK:
 - Gestio administratiboa (Erdiko Maila)
 - Idazkaritza (Goi Maila)
 - Programa Informatikoen Garapena (Goi Maila)
 - Administrazioa eta Finantzak (Goi Maila)
 - Nazioarteko Merkataritza (Goi Maila)

AURREMATRIKULARAKO EPEAK:

- **Batxilergo** eta **Erdi Mailako** Heziketa Zikloak:
Ekainaren 1etik 18a arte
- **Goi Mailako** Heziketa Zikloak:
Ekainaren 1etik 18a arte

Larraña, 33 • OÑATI
Tel.: 943 71 80 09 • Faxe: 943 71 81 62



**ESKAINITZA
BEREZIAK**

**Sofa
leku**

**HIRU JOKO
LARRUA
OIHALA
3+2**



GRUPO

**Amuebladora
Mondragonesa**



OMU
ZERAMIKAK



**Zeramika
Arte
unibertsala**

Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

Orain erakustoki berria, Ignacio Zuloagan

Kultura Etxea urte bukaeran hasteko

Joan den asteleheneko osoko bilkuran Arrasateko Udalak onartu egin zuen hitzarmen bat egitea frantziskotarrekin, haien komentua inguruan. Horren ondorioz, bidea aske geratu da kultura etxea izango denaren lanei ekiteko.

Alkateak adierazitakoaren arabera, lanok urte bukaeran hasiko dira. Aurreproiektua Donostiako Ugarte arkitektuak egin du eta horren arabera, Kultura Etxeak hementeko, ia 250 metro karratuko orotariko aretoa, erakusketa aretoa, liburutegiko biltegia, ludoteka eta ikasteko aretoa izango ditu. Dena dela, alkateak esandakoaren arabera, behin betiko proiektua oraindik egiteke dago eta, ondorioz, onartzeke.

GAZTETXEA ZALANTZAN
Laurehun milioi pezetako aurrekontua izan lezakete lan



Proiektua oraindik udalbatzak onartu behar du.

hauek. Horietatik 48 udalak jarri beharko ditu aurten bertan eta falta dena datorren urtean. Kasu honetan ere, oraindik aurrekontua onartu barik dago. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 60 milioi pezetako diru laguntza emango du.

Gaur egun fraideekin batera, musikariek, margola-

riek eta Gaztetxeak erabiltzen dute ospital zaharra. Jose Mari Loitiren esanetan, Gaztetxea izan ezik, beste guztiak Musika Etxera pasatuko dira. Izan ere, Gaztetxearen kasuan "hartu beharreko lehenengo erabakia da zein gaztetxe mota behar dugun Arrasaten, eta gero, non kokatu den".

Eibar-Gasteiz, Harresi aretoan ikusgai

Eibar-Gasteiz autobidearen maketak Harresi aretoan daude ikusgai, ekainaren 15a arte. Maketa bat eta hiru panel daude. Lehenengo taulan Etxebarritik Eskoriatza Iparraldera doan zatia ikus daiteke; 24 kilometro pasatxo ditu eta 38 milioi pezetako aurrekontua. Bigarren taulan Eskoriatzatik Bergararaino heltzen den zatia irudikatzen da; honek, 27 mila

milioi pezetako aurrekontua du. Hirugarrenean, bestalde, Bergararik Malatzagara doana ikus daiteke; kasu honetarako, berriz, 33 mila milioi pezetako aurrekontua aurreikusida.

Erakusketa hau Antton Jaime Garraio eta Errepide-etako diputatuak ireki zuen pasa den asteartean. Esan zuenez, hirugarren belaudaldiko autopista da hau,

herriaren garapenarekin bat datorren proiektua izateaz gain, ingurugiroa zaintzen ahalegindu delako.

Irekitze ekitaldian Jose Mari Loiti alkatea eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Luis de Mozos Plangintza Teknikoko zuzendariordea ere izan ziren. Azken honek Kurtzetxikiko eta Ikaztaundiko tunela nabarmendu zituen Arrasateri dagokion zatian.

Jaiotzak

- Oihan Peñas Lazkanoiturburu. Maiatzaren 24an.
- Miren Urria Elkoroiribe. Maiatzaren 24an.
- Aitor Aristu Kortazar. Maiatzaren 24an.
- Jon Hernandez Fernandez. Maiatzaren 25ean.
- Maite Oviden Landaluze. Maiatzaren 27an.
- Aitor Xpe Trojaola. Maiatzaren 28an.
- Ainhoa Bolinaga Aiausti. Maiatzaren 29an.
- June Rodriguez Fuentes. Maiatzaren 30ean.

Ezkontzak

- Unai Juaristi Zabaleta eta Itziar Uriarte Markaide. Maiatzaren 22an. Zibilez.
- Jesus Dominguez Moneo eta Maria Isabel Gutierrez Barranca. Maiatzaren 29an. Zibilez.
- Jose Rodriguez Rodriguez eta Antonina Pacho Barcos. Maiatzaren 29an. Elizaz.
- Axel Medrano Zubizarreta eta Elsa Maria Hervas del Rio. Ekainaren 1ean. Zibilez.


Hildakoak

- Jose Antonio Urkiola Lonbide. 57 urte. Maiatzaren 22an.
- Angela Sanchez Caceres. 82 urte. Maiatzaren 25ean.
- Margarita Iñurriagarro Pagaldai. 87 urte. Maiatzaren 27an.
- Katalina Artola Ibagutxi. 92 urte. Maiatzaren 31n.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84


ARETXABAETA



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

UDAKO Ikastaro Trinkoak

99

MEKANOGRAFIA,
ORDENAGAILUZ

INFORMATIKA

INTERNET

MICROSOFT PROJET

AUTOCAD

INFORMATIKA
PROGRAMAZIOA

WINDOWS NT

KONTABILITATE ETA
MERKATARITZA
GESTIO MEKANIZATUA

GIZA BALIABIDEEN
ADMINISTRATIOA

ZERGEN GESTIOA
PYMEetan

LAGUNTASUN
ESKOLAK

- Ingeniaritza
- Enpresa
- Eta beste

abuztuan ere
prestatzen da

INFORMATIKAKO
TRESNEN
MANTENIMENDUA
ETA KONPONKETA

MUSIKA INFORMATIKA
(MIDI sistema)

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 2. Arrasate
Tel.: 943 79 35 33
Fax: 943 79 06 28
e-mail: bastida@tsai.es

Legealdiko azken osoko bilkura



PPko zinegotzia izan ezik, gainerakoek 14 puntu jorratu zituzten legealdi honetako azken osoko bilkuran.

Astlehenean hamalau gai lan-du ziren osoko bilkuran. Lehendabizikoa, Arrasate Garatu izeneko egitasmoa. Udalak herriko lur industrialak kudeatzeko sortu du eta elkarte honen Administrazio Kontseilua onartu zen; Jose Mari Loiti alkatea elkar-teko lehendakari izango da, hiruko gobernuaren aldeko botoekin eta HB eta EBren aurkakoekin.

FRANTZISKOTARREN KOMENTUA

Ospitale Zaharrari buruz, onartu egin zen frantziskotarrek sinatu beharreko hitzarmena. Honen arabera, komentuaren ia 4.000 m² udalaren esku geratuko dira. Kultura eta gizarte ekimenak garatzeko erabiliko dira. Honen trukean, frantziskotarrak 1.000 m² pasatxorekin geratuko dira. Eraikuntza honek behar duen birmoldaketa osoa, bestalde, udalaren esku geratuko da.

HBk eta EBk gogor kritikatuz zuten bai hitzarmena eta baita udalak erakutsi duen jarrera itxia ere. Bien ustez, gehiegi da frantziskotarrei 1.000 m² ematea. Gainera, eraikuntzak behar duen eraberritzea, jabego agiriak eta bestelako gastuak udalaren esku geratzea ere ez zuten onartu. Gaiari eman zaion tratamendua dela eta, epaitegitara joatea aztertuko du HBk.

AITA MENNI

Onartu zenez, Aita Menni ospitalak pertsona nagusiak hartuko ditu hemendik aurrera, 15 hasteko. Gaixoaren egonaldia udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta gaixoak berak ordainduko dute.

Kasu honetan, EBk ere aurkako botoa eman zuen eta HB abstenitu egin zen. Angel Tijero EBko zinegotziaren ustez, erabiltzaileak eman behar duenaren zati bat Aita

Mennik ordaindu beharko luke eta ez soilik udalak eta erabiltzaileak.

SENIDEAK-EN MOZIOA

Senideak elkarteak Enrike Letona arrasatear presoaren osasun eskasa dela eta, mozio bat aurkeztu zuen. Hiru gauza eskatu zizkion udalari: batetik, beharrezko gestioak egin ditzala Enrikeri behar duen tratamendua eman diezaioten, Martutenera ekartzea eta haren egoeraz interesatzea. Hiru puntuak aho batez onartu ziren.

Enrike Letonak 12 urte darama arazoekin ezkerreko orkatilan. Orain urtebete operatzeko zerrendan sartu zuten Murtziako ospitalean, baina azken aldian ezetz esan diote. Familiak eskatu du Martutenera ekar dezatela, bere konfiantzazko mediku batek ebakuntza egin diezaioten edo bestela Murtzian bertan egin diezaiotela ebakuntza.

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostekak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Sozialistak loratan



Maiatzak 28. Zortziehun larrosa banatu zituzten Arrasateko sozialistek joan den ostiralean. Azokan, merkatu txikian, auzo-etan... bakoitzari lora bana, alderdiaren programan bildua. Argazkian: Rafi Romero, Matilde Martin eta Paco Garcia.

EHkoak papereztatzen



Maiatzak 28. EHko kideak ere, txintxo-txintxo irten ziren taldearen hormirudiak pegatzera, Gipuzkoako Etorbidean zegoen tokian. Haritz Azkarragak kolatu eta Ino Galparsorok, zerrendako bigarrenak, zabaldu.

EA eta EAJ bateginik



Maiatzak 28. EAJk eta EAK ere kanpainaren lehen eguna aprobetxatu zuten ekitaldi politikoa egiteko. Joseba Egibar, Roman Sodupe, Jose Mari Loiti eta Jon Goikoetxea izan ziren hitz egiten Monterronen.

Alkategaiak irratian



Maiatzak 29. Alberto Gorritibereak lau alkategai bildu zituen —Joseba Ugalde, Jose Mari Loiti, Paco Garcia eta Xabier Zubizarreta— udaletxe osoko bilkura aretoan, zuzeneko irratisaio bat egiteko: *Udal Bide*. Udal politika jorratu zuten goitik behera lau lagunek.

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

TOTEM

- Zapatak
- Tatuajeak
- Arropak
- Body piercinga

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88
Zarugalde, 14 • ARRASATE

Alkate ohiak



Albaro Arregi
(1983-1987)

Udaletxean sartu orduko —“terzio sindikaletik sartu nintzen, sindikatuan inoiz egon barik nintzela”— makina bat lan egindakoa zen herrian, bai escoutekin eta baita Besaide Mendi Elkarteko lehendakari moduan. Alkate izan aurretik, bost urte egin zituen zinegotzi lanetan.

“Urkuluko ur ekarera (1986an) izan zen nire agintealdiko gauzarik inportanteena”. Baita Monñerron etxea eta parkea atondu eta irekitzea eta Iturbide egoitza zabaltzea ere.

“Jende gehiago pasatu beharko litzateke udaletik. Horra doazenak lanera doaz eta ez firin-farin ibiltzera”, dio. Bere agintealdia amaitu zutenean, erabat utzi zuen politika.

Gero eta txukunago ikusten du Arrasate. “Hirigintzari dagokionez, desastre geratu zen gerraondoko garapen urteen ostean, baina azken urteotan konponduz doa”.

Hurrengo alkateari gomendatzen dio egin dezala kontzientzian pentsatzen duena.

Zu alkate bazina?

Baba beltza batu du eta egun hauetan tomatea, piper berdea, lekak eta letxugak sartzen aritu izan da buru-belarri ortuan. Hantxe hartua du, eta ez Benidormen, beltzaran dotorea. Hainbat urtez lehendakari izan ostean, orain diruzaina da Santamainako erretiratuen etxean. Sasoi batean zinegotzi ere izan zen.

— Alkate bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen erabakia?

— Ezer egin aurretik, denei entzun, inor baztertu barik; azken batean, jendeak daki, alkateak baino hobeto, zer gertatzen den herrian. Ondoren, ateratako ondorioak zinegotzi guztiei aurkeztu eta denon artean landu.

— Nolako dohainak izan beharko litzuke alkate batek?

— Lehenengo eta behin, herritarra izatea. Eta gero, umila.

— Erretiratuek ez lukete parte hartu beharko udalbatzan?

— Behin edo birritan eskatu genuen erretiratuok batzordeetan parte hartzea, baina ez da erraza izaten bat aurkitzea horretarako prest egongo dena. Komeni bai, komeniko litzateke, zinegotzi moduan edo batzordeetan bestela ere lan egitea, baina...

— Zeintzuk dira erretiratuek dituzuen arazorik larrienak?

— Juntak-eta osatzeko arazoekin ibiltzen gara, jendeak ez duelako gura izaten parte hartzerik. Bakardadea eta gaixotasunak ere arazo larriak dira. Bereiztu egin beharko lirateke bere burua zaintzeko gai direnak eta ez direnak, eta horren arabera zerbitzuak eskaini.



Bixente Azkarate

— Zer gomendatuko zenioke hurrengo alkateari?

— Talde guztiei eman diezaiela txanda, zer premia dituzten hobeto ezagutzeko. Har dezala konfiantza jendearekin eta arrasatear guztien alkate izan dadila.

— Zeintzuk dira Arrasatek dituen premiarik gorrienak?

— Erretiratuen etxeak, parkinak eta auzoetatik pasatuko den autobusa, paraje horietan zahar asko dago eta, ibili ezinik dabilena. Porlan gutxiago eta berde gehiago. Eta auzoetako lorategiak erdialdekoak bezain txukun zain ditzatela. Horixe eskatuko nioke, atrebentzia ez bada.

— Zer espero duzu hauteskunde hauetatik?

— Askok bakea eta denon artean herria jasotzea. Beste asko bezala, ni ere itxaropentsu nago.

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99


Printzak

❖ Lau arrasatear gehiago aurkitu ditugu Batzar Nagusietarako egingo diren hauteskunde zerrendetan. **Joseba Ugalde** eta **Angel Tijero** hirugarren eta bederatzigarren izango dira Ezker Batuaren zerrendan. **Itsaso Garai** laugarren EAJ-EAkoan eta **Paco Garcia** hamargarren sozialisten listan. Besteak aipatuak genituen. Xabier Zugasti arrasatearra, bestalde, EBko zerrendaburua izango da Eşkoriatzan. **Luis Limon**, berriz, sozialisten alkategaia, Oñatin.

❖ **Angel Iturbek** eta **Jose Manuel Pagoaga Peixoto** iheslari arrasatearrek ere parte hartu dute kanpainan, EHren aldeko botoa eskatuz, talde honek etxeetan banatu duen orrian. Biak batera agertzen dira argazki batean.

❖ Joan den larunbatean entzule batek zera esan zion, gaztelaniaz, **Xabier Zubizarretari** Loiola Herri Irratiko *Udal Bide* irratsaioan, botoa eskatzeko orduan euskaraz eskatzeko alegia. Honek gaztelaniaz erantzun zion, esanez orain arte erdaraz hitz egin dion mundu guztiari beti erdaraz erantzun diola berak.

Quisiera ser alcalde...



Xabier Zubizarreta

Xabierrek 54 urte ditu, baina soldadutzara joan aurretik hasia zegoen lehen urratsak egiten politikan: panfletoak banatzen eta Franco-ren kontra egiten. Harrezkero beti ibili da saltsan, 1975etik 1977ra Bokalen bizi izan zen, Lapurdin, hemendik ihes eginda.

Bera da udalbatza osatzen dutenen artean urte gehien daramana Arrasateko Udalean: sei egin ditu zinegotzi moduan eta hamar alkate bezala. Orain, gainera, diputatu nagusi izateko hautagaia da.

Mendia eta pilota ditu maite. Pilotari ez izanaren pena du eta, horregatik akaso, ahal duen guztietan ikusten du pilota telebistan. Uste du gogoetazale dela, ameslaria, baikorra eta, zenbaitzuen esanetan, egoskorra ere bai. Besteengan borondate ona balioesten du.

Gustatu arren, denbora gutxi du irakurtzeko eta zinera joateko. Ia ez da gogoratzen ikusi zuen azken filmaz.

Badu besteentzako gomendio bat, berak askotan betetzen ez duena, gorde dezatela berentzat bizitzaren une batzuk alegia, "munduaren etorkizuna ez baita minutuero erabakitzen".



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Ikerkuntza eta enpresa



Gazteak ere izan dira Monterongo erakusketan, jakinmina asetzen.

1974an sortu zen Ikerlan. Eskola Politeknikoan izan zuen sorburua, ikerkuntza eta garapenez arduratzen zen departamentu txiki batean. Manolo Quevedo, Jose Miguel Mancisicor, Karmelo Azkoitia, Gotzon Arregi, Kar-

los Luri eta Karlos Redondo izan ziren iker-tegi haren hauspo. Harrezkero 25 urte pasa diren arren, enpresen euskarri teknologiko izaten segitu nahi du Ikerlanek, hasiera hartan bezala.

Urteak ez dira alperrik pasatzen. Ezta Ikerlanentzat ere. Jose Maria Arizmendiarraren garaian ikerketa eta garapenez arduratzen zen Eskola Politeknikoko departamentu txiki hura teknologia ikertegi handia da egun. 200 inguru langile ditu (bekadunak barne), eta laboratorioak, prototipo lantegiak eta ekipo eta instalakuntza modernoak ditu. Arrasateko Kooperatiba Korporazioaren barne egonik, Euskal Herriko Ikertegi Teknologikoen Elkarteko, Berrikuntza eta Teknologiko Erakundeen Espainiako Federazioko eta Ikerketa

eta Teknologia Erakundeen Europako Elkarteko kide ere bada. Baina, orduko hartan egiten zuen gisa, enpresen garapenera zuzentzen ditu bere asmoak orain ere.

1977an Eskola Politeknikotik Olandixora aldatu zen Ikerlan. Euskadiko Kutxak jarri zuen azpiegitura, eta hainbat kooperatibaren babes ekonomikoa ere bazuen teknologia ikertzeaz arduratzen zen talde hark. Berrogei bat langile ziren orduan. Karlos Redondo Ikerlaneko kudeatzaile denak pozik ikusten du ikertegiak izan duen garapena: "sasoi hartan gure jardueraren %15 edo %20 soilik

finantzatzen genuen, eta gairontzekoa gure ikertegiaren elkarkide ziren kooperatibek. Poliki-poliki merkatu esparruak geureganatuz joan ginen. Orain erakunde publikoek %30 gutxi gorabehera finantzatzen dute, eta enparauko guk geuk".


GARAIETARA EGOKITUZ

Ikerlanek etengabe berritu behar izan du bere jakintza, ikerkuntza generiko eta estrategikoko proiektuen bidez. Industriaren berrikuntzarako gaitasuna indartzea du helburu nagusi, nazioartean bere lehia-kortasuna lortzeko asmoz. Produkzio prozesu eta pro-

duktuetan sortutako arazo zehatzei konponbide eraginkorrak emanez, goi mailako zerbitzua eskaini nahi dute. Horretarako industriaren premia eta eskakizunetara egokitu behar izan dute beren antolamendua: "gure asmoa da antolamendua eta lan ildoak garai berrietara egokitzea, eta ez alderantziz", diosku Karlos Redondok.

Hori lortzeko, bi jardueratan oinarritzen dira: batetik ikerketa generiko eta estrategikoan, beren jakintza mailari eusteko. Bestetik kontratutpeko ikerketan aritzen dira, beren ezagupideak bezeroengana eskualdatuz, azken horiek teknologia eta antolaketa arazoak konpon ditzaten.

Teknologiak asko aurreratu badu ere, lan esparruak berdintsu mantendu dira, ordea: "Ikerlan garatuz joan da. Lan arloak, ordea, ez ditugu asko aldatu. Mekanika, elektronika eta informatika



Arabako Miñanon dago Ikerlaneko Ener



Jena AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAREN, 2. eskuko autoen aldizkaria.

7. zenbakia. 1999ko ekaina.

Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe eta Maddi Trutxuelo.

Tirada: 11.500 ale.

Berrigara

Arrasate

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30

Peugeot 406 SV 2.0				*6
Peugeot Partner D				*6
Peugeot 306 GTI 6 abiadurakoa				*7
Peugeot 106 Sketch 1.1				*4
Peugeot 205 D				*2
Peugeot 205 G				*2
Peugeot 405 G				*2

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD, KE, IZ, LK, AH	*3
Ford Escort 1.6 RS Turbo	SS-AJ	1990	Autoblock, EBD, Km gutxi	*3
Ford Sierra 2.0i Sport	BI-AZ	1989	LD, KE, IZ, AG, SE	*2
Renault Supercinco GTX	SS-AB	1988	KE, IZ, LK, AH	*1
Ford Orion 1.6i Ghia	SS-AB	1988	KE, IZ	*1
Fiat Tipo 1.6 AGT	SS-AK	1991	KE, IZ, LD	*2

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Citroen Xsara 1.9 D	M-VZ	1998	5 ate, osagarri asko	*6
Citroen Xsara 1.9 TD SX		1998	5 ate, osagarri asko	*7
Rover Discovery 2.5 TDI		1993	AG, SE bikoitza	*7
Citroen Xantia 1.9 TD SX		1996	KL, AG, Airbag, Km gutxi	*6

KANPAZAR TAILERRAK. Bizkaia etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 943 79 41 98

Fiat Uno D	SS-AF	1989	IK, 3 ate	*2
Opel Corsa	SS-AM	1992	IK, 3 ate	*1
Peugeot 309 GR	SS-Z		IK	

LENIZ GARAJEA. Aingeru guarda 31. Eskoriatza. Tf. 943 71 50 61

Citroen AX TRS	SS-AD			*1
----------------	-------	--	--	----

MECA TAILERRAK. San Andres 8. Arrasate. Tf. 943 71 24 72

VW Golf Cabrio 1.6	SS-AC	1989		*4
Renault Clio 1.4 RN	SS-AK	1991	3 ate	*5
Renault Traffic 1.4 Combi	SS-AY	1997	Gainaltzatua	*6
Ford Fiesta 1.6	SS-Z	1987		*1


AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko hagnak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak
HT: Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoak
KL: Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurpiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak
LKA: Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoak

***1:** 300.000 PTara arte
***2:** 300.000-500.000 PTA
***3:** 500.000-750.000 PTA
***4:** 750.000-1.000.000 PTA

***5:** 1.000.000-1.500.000 PTA
***6:** 1.500.000-2.000.000 PTA
***7:** 2.000.000 PTAtik aurrera

GARAJE MURILLO
Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tf. 943 76 13 84



Garraioaren mundua

LAGUN GARAJEA

Javier Gallastegi Arenaza

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

ORAIN HELBIDE BERRIA!

Santalaitz 3. Beragara. Tf. 943 76 11 20



Automobilaren
karburazio eta
elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
Renault Megane Clasic 1.6 Alizé	B-TX	1998		*6
Renault Twingo 1.2 Wind	SS-BB	1999		*5

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44

Ford 4x4 Maverick TDI		1996		*
Mithsubichi 4x4 TDI		1998		*
Nissan Patrol 4x4 DI		1989		*
Ford Scort RS 2000 4x4		1994		*
Land Rover 4X4		1980		*
Ford Mondeo TDI		1996		*
Ford Mondeo TDI		1997		*
Ford Mondeo TDI		1994		*
Ford Fiesta Di		1993		*
Ford Fiesta Di		1992		*

* 40 auto baino gehiago 200.000 eta 3.000.000 pezeta artean. Zatoz ikustera!

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Opel Corsa GSI 1.6	VI-L	1990	Ugari	*3
Opel Astra Merit 1.6 i	SS-AW	1996	Ugari	*5
Opel Vectra GL 1.7 D	SS-AL	1991	Ugari	*3
Opel Vectra GL DTI 2.0	M-VZ	1998	Ugari	*7
Renault Clio 1.9 D 3 ate	M-TN	1996	Ugari	*4
Rover 214 GSI 16V 5 ate	SS-AM	1992	Ugari	*3
Audi 2.2 200 4x4 T	SS-AG	1986	Ugari	*3
Smart Pulse 55 CV	Berria	1999	Ugari	*5
Opel Vectra Caravan 1.8i 16V	Berria	1999	Ugari	*7
Opel Corsa SW 1.2 3 ate	SS-BB	1998	Ugari	*4

Kotxe ugari errebisatu eta bermatuak 200.000 et 500.000 pezeta artean

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Peugeot 405 GL	SS-AB			*2
VW Golf GTI 3 ate	SS-AK			*3
Renault 19	SS-AD			*2
Audi 90 Quatro	SS-AS			*4
WV Yetta	SS-AD			*1

TXOMIN GARAJEA. Lizarra auzoa z/g. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Opel Astra 2.0	SS-AK		AG, ABS, IK	*4
----------------	-------	--	-------------	----

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak
 HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak

*1: 300.000 PTArate arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000 PTatik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tf. 943 76 33 00

TXOMIN GARAJEA

Tailer profesionala

- Mekanika orokorra
- IAT/ITVrako prestaketa

Lizarraga auzoa. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!

Txorno
Auto-errekantbioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

35.000 IRAKURLE

Berrigara Arrasate

DENA AUTO

2. ESKUKO
AUTOMOBILEN GIDA

Deba Garaiko auto saltzaileok! Aukeran dituzuen erabilitako kotxeen eskaintza, **Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara** helduko da. **35.000 irakurle** inguruk izango dute Dena Autoren berri.

Dena Auto, Deba Garaiko 2. eskuko automobilen gida, berriz ere zuekin, 1999an **eskaintza berrieekin** dator.

Kontratazioa

Nerea Lazpiur

ARRASATE PRESS
Otalora kalea 31
20500 Arrasate.
Gipuzkoa

Telefonoak:

943 76 03 97

943 71 25 11

Faxak:

943 76 29 77

943 71 23 95

BERRIGARA

Errotalde jauregia z/g
20570 Bergara.
Gipuzkoa

Uztailaren 9an ale berezia

argitaratuko dugu. San Kristobal dela eta, motorrari buruzko berezia egingo dugu, gaiaren inguruko **artikuloekin** eta publizitatearekin.

Auto saltzaileok ez duzue hau baino aukera hoberik izango zuen eskaintzen berri emateko!

Ondorengo aleak urriaren 15ean eta azaroaren 26an argitaratuko dira.

1999rako eskaintza berezia egin nahi dizuegu. Lerroaren eta publizitate moduloaren prezioa hauexek izango dira:

LERROA: 1.300 PTA

PUBLIZITATE MODULOA: 3.000 PTA

Sei egin eta bost ordaindu:

Bost lerro kontratatzen badituzu, seigarrena doan jarriko dizugu. Eta urte osorako publizitatea kontratatuz gero, hau da, sei inserzio eginez gero (edozein modulaje), bost bakarrik kobratuko dizugu.

uztartuz



dira gure jardueran ia beti izan ditugun esparruak, horien uztartzeak sektore pila batera helaraztea baimentzen baitigu: makina lanabesa, etxe-ko tresna elektrikoak, auto-gintza, garraioa...”, gaineratu du Redondok.

LAN ANTOLAMENDUA

Bezeroekin lan egiterakoan hiru oinarri ditu Ikerlanek. Ikerketa garapenerako proiektu guztiak elkarlanean egiten ditu, bezero den enpresako teknikarien eta Ikerlaneko iker-tzaileen artean bitariko lan-taldeak sortuz.

Proiektuen emaitzak eta enpresatik hartutako informazioa isilpean gordetzen dute. Oso faktore erabakigarria da hori, bezeroekin konfiantzako harreman sendoak sortzen baititu.

Azkenik, bezeroaren eta Ikerlanen arteko lankidetzaz luza-roan bermatzeko aukera sortzen da, bezeroaren premia

DATA GOGOANGARRIAK

- 1975:** Mikroprozesadorea: lehenengo erabilerak. Ordenagailuaren garapenerako oinarria.
- 1977:** Egungo eraikinen inaugurazioa.
- 1978:** GIZAMAT. Espainiako estatuan industri robot baten lehenengo prototipoa. Funtzioa: piezak makinatan jarri eta kentzea.
- 1979:** Eguzki kolektoreak, ura berotzeko.
- 1982:** Lehenengo lankidetzaz hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin.
- 1984:** Ikerlanen X urteurrena.
- 1987:** Lehenengo lanak etxearen automatizazio integratuaren arloan.
- 1991:** Adimen artifiziala: sistema adituak, neurona sareak, algoritmo generikoak...
- 1992:** Mekatronika: Mekanika, Informatika eta Elektronika konbinazio sinergikoa.
- 1996:** Metro Bilbaoko tren plangintzaren sistema integratua.
- 1998:** Energia saila Arabako Miñaora. Optoelektronika: zuntz optikozko sentsoreak.



Karlos Redondo.

eta beharrekin bat egiteagatik eta eskaintzen duten zerbitzuaren kalitateagatik.

ENERGIA SAILA ARABAN

1998an Energia Sailak Arabako Teknologia Elkartegira eraman zuen bere jarduerara, Miñaora. Han dago ENERLAN, Energia Teknologien Garapenerako Euskal Fundazioa, Ikerlanekin lankidetzaz hitzarmena sinatuta duena. Itun horren ondorioz, espezializazio arlo berrietan hasi ziren lanean, eta lehenagoko teknologia esparruak ere indartu egin zituzten: “erabaki bat hartu beharra genuen: energia arloko jarduerara poli-ki-poliki hiltzen utzi edo indartu. Indartzea erabaki genuen, eta baita asmatu ere. Orain etxearekin lotura estua duten

“Enpresarekin asko identifikatzen direnak, etorkizunera begira daudenak eta beren lan arloaz asko dakitenak dira Ikerlaneko langileak”

produktu saila garatzeaz arduratzen da bereziki: klimatizazioa, erre-kuntza tresnen diseinua...”, dio Karlosek.


ETORKIZUNERA BEGIRA

Azken urteotan ekonomiak izandako bilakaera ona geldotzen hasi den arren, enpresen aldetik proiektu eta zerbitzuak berritzeko izan duen eskaerak bere horretan segituko duela uste du Ikerlanek, teknologia eta berrikuntza gero eta garrantzitsuagoak baitira nazioarteko merkatuetan.

Aurrera begira, batez ere mikrosistematan eta teknologia optoelektrikoetan finkatuko du Ikerlanek bere lan ildoak.

Baina, funtsean, helburua bakarria izango da: enpresei ezagupen berriak eta zerbitzu hobea eskaintzea, produktu eta prozesuen garapen arazoak konpontzeko; Jose Maria Arizmendiarrrietaren garaian bezala. ■

Maider Osa





NATURA EZAGUTZEN

Umezaintzako hiru, lau eta bost urteko haurrak Gernikako Lurraska Ingurugiroko base-rrian izan ziren maiatzean. Primeran pasatu zuten ogia nola egiten den ikusten, abereen bizimoduaz ezagutzen eta basoa aztertzen!



IZENAK

Eluska Zabalo

Margolari arrasatear hau Ruta Quetzal ospetsuan parte hartzeko aukeratu dute. Eluskak Vasco Nuñez de Balboaren erretratu batekin lortu du bidaia horretan parte hartzeko aukera. Ekainaren 16an Toledotik irtengo da eta bi hilabetez Espainia eta Panama inguruan ibiliko da.



Jose Antonio Ardanza

Tubacex enpresako Administrazio Kontseiluko kide egin dute. Ardanza Arrasateko alkate, Gipuzkoako aldun nagusi eta Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan da.



HIRI HANDIAN BARNA

San Viatorreko 67 ikasle Madrilan izan ziren maiatzean euren tutoreekin. Hura guztia lau egunean ezagutzea ezinezkoa da, noski. Hala ere, gauza eta leku ugari ikusi dituzte. Zooan argazki hau ateratzeko astia hartu zuten.

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tel.: 943 79 13 78

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

TOKION

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN SALMENTA
Erdiko Kale, 7
Tel.: 943 79 91 64 • ARRASATE



MOJETAKO IKASLEAK

Igokundearen Eskolan ikasitako ikasleak maiatzaren 22an elkartu ziren Batzokian, elkarrekin bazkaltzeko. Aurretik, noski, eskolako kaperan meza entzun zuten.

Ondoan dagoen argazkiko eraikuntza eskola zaharra da, orain San Viator Txikiren atal bat dena. Nahiko aldatuta, beraz.

GOIKOBALU ZUBIGINTZAN

Orain bederatzi hilabete Argentinatik ekarritako zuhaitz bat, ombu bat zehazkiago, landatu zuten Goikobalukoek Santa Barbaran. Ondoren, bi kantu eder abestu zituzten: *El Roble y el Ombu* eta *Euskal Herriko*. Zuzentzen, Iñaki Maidagan.



MEREZI DUTE ETA!

65 urtetik gorako 1.100 arrasatearrek omenaldia jaso zuten larunbatean, SUDCek eratu. Meza, bazkaria eta sekulako dantzaldia izan zuten. Zaharrenak Candido Moraleja, 98 urtekoa, eta Maria Asuncion Perez Ruiz, 96koa, izan ziren. Agurra dantzatu zieten bie.



ARTOUR TRAVEL
bidaiak

San Juanetan Arrasaten?

- Salou, 3★ 27.160 pta
- Benidorm, 2★ 25.445 pta
- Mallorca, 3★ 48.100 pta
- Tenerife, 4★ 62.000 pta
- Dominikar Errepublika
dena barne 121.950 pta
- Londres,
hegazkina bakarrik 21.000 pta

Maixu Arano, 2
Portaloian
Tel.: 943 79 32 22
20500 Arrasate

**Eskaintza ezin hobek
Artour Travel-en!!!**



Los Heredia eta Argi Ibilii taldeek jokatu zuten Zaldibarko finala 1992an. Nork jokatuko du aurtengoa? Ikusi egin behar gelditzen diren zortzi taldeetatik nork lortzen duen argazkia!

Laburrak

■ FINAL LAURDENAK IRITSI DIRA

Gero eta gutxiago gelditzen da ekainaren 19ko finalerako. Txapelketa hasi zituzten 53 taldeetatik zortzi baino ez dira gelditzen eta asteburu honetan final laurdenak jokatu dituzte. Baina oraindik borroka gogorra izango da. Joan den asteburuan ere lehia bizia egon zen zortzi pribilejiatuen artean sartzeko. Aurreko astean aurreratu bezala, A taldean

Txantxiku Kirolakek eta Lontxo Tabernak lortu dute txartela. You Know kanpoan gelditu da, *golaveragea* dela eta.

B taldean, Aldibik eta Orlando Piratasek. Esan bezala Orlando Piratasek irabaziz gero sailkatu egingo zen eta horixe egitea lortu dute.

D taldean, AC Surkosek eta Naranja Mecanicak lortu dute sailkatzea. Duda bakarra lehen tokia nork lortuko zuen jakitea zen eta azkenean AC Sur-

kosek lortu du, Naranja Mecanicari irabazi ostean.

E taldean, Branka Tabernak eta Potroakek jokatu dituzte final laurdenak.

■ PARTIDA BAKARRERA

Aurreko urteetan legez, aurtentzen ere partida bakarrera jokatu dira gelditzen direnak. Berdinduz gero, gehienez 10 minutuko luzapena jokatu da. Epe horretan golik lortuz gero, norgehiagoka amaitu-

tzat emango da. Baina berdinketak segituko balu, penaltiak jaurtiki beharko dira.

■ AZKEN ORDUKO KALEA

Aukerarik ez zuela eta, KKJaurik txapelketa bertan behera laga zuen larunbatean. Dribling taldearen aurka ez zuen jokatu. Dena dela, horrek ez zion Dribling taldeari ezertarako balio izan, nahiz eta partida irabazitzat eman.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76


Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Ald.	Aurk.	Guzt.
Txantxiku Kirolak	3	2	0	1	21	9	4
Lontxo Taberna	3	2	0	1	12	7	4
You Know	3	2	0	1	12	13	4
Sokoakoak	3	0	0	3	3	19	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Ald.	Aurk.	Guzt.
Aldibi	3	3	0	0	21	11	6
Orlando Piratas	3	2	0	1	16	10	4
Komando Alpargat	3	1	0	2	14	23	2
Pepelus	3	0	0	3	9	19	0

D taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Ald.	Aurk.	Guzt.
AC Surkos	3	3	0	0	19	12	6
Naranja Mecanica	3	2	0	1	19	10	4
Dribling	3	1	0	2	8	17	2
KKJauri	3	0	0	3	8	15	0

E taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Ald.	Aurk.	Guzt.
Potroak	3	2	1	0	18	2	5
Branka Taberna	3	2	1	0	11	6	5
EPEH	3	1	0	2	12	15	2
AT Celaya	3	0	0	3	5	23	0



Emaitzak

- A taldea**
Txantxiku Kirolak 11 - You Know 2
Lontxo Taberna 4 - Sokoakoak 2
- B taldea**
Aldibi 5 - Pepelus 2
Orlando Piratas 8 - Kom. Alp. 2
- D taldea**
AC Surkos 4 - Naranja Mec. 3
Dribling 1 - KKJauri 0
- E taldea**
EPEH 4 - Branka Taberna 6
Potroak 11 - AT Celaya 1

IV Nesken Futbito Txapelketa



6. jardunaldia
San Viatorren
 leup!3 - Izen Bakuak 3
 Nuze 3 - Pil pil Efektue 11
 Skarlets 7 - @z.kom 1

Ferixalekuan
 Txanpi 2, 16 - Gora Gu 2

Oraindik jokatzeko:
 Txanpi 1 - Porrusalda Forever

Ekainak 5, larunbata
San Viator Txikin:
 16:00 Skarlets - Gora Gu
 17:00 Nuze - Izen Bakuak
 18:00 leup! - @z.kom

Ferixalekuan:
 16:00 Txanpi 1 - Pilpil Efektuek
 17:00 Txanpi 2 - Porrusalda For.

SAILKAPEN GORABEHERAK
 Pilpil taldeak atzeratutako nor-gehiagokak jokatu ditu eta dagoeneko 8 puntu ditu. Hori dela eta, sailkapenean gora igo eta bigarren tokian dago.

KONTUAN HARTZEKO
 Partidaren bat atzeratu nahi izanez gero, antolakuntzakoek adierazi digutenez denboraz abixatu beharra dago. Izan ere, partida guztiak jokatu behar dira eta.

Sailkapena


1 - Txanpi 2	10
2 - Pilpil Efektuek	8
3 - Txanpi 1	8
4 - Izen Bakuak	8
5 - Porrusalda Forever	7
6 - leup!!	5
7 - Gora Gu	4
8 - Skarlets	3
9 - Nuze	1
10 - @z.kom	0

ARRASATE KIROLAK
 Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

Hurrengo partidak

Final laurdenak
Ekainak 5, larunbata

Zaldibar
 11:00 Orlando Piratas - Potroak
 12:00 Txantxiku Kirolak - Naranja Mec.
 16:00 Lontxo Taberna - AC Surkos
 17:00 Aldibi - Branka Taberna



Alkoholarekin arazoak daukazu? Agian, "Alkoholzale Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholzale Anonimoak
 3. eremuko Informazio bulegoa (Gipuzkoa) • Tel.: 943 61 93 38

Nazioarteko Lehen Errugbi Topaketa

Larunbatean jokatu da Zazpinako Errugbiaren Nazioarteko Lehen Topaketa. Talde hauek arituko dira Arrasate Errugbi taldeak antolatuturiko topaketan: Zou Zou taldea, Miarritzeko Olympic, ESAIT, Donostiako Bera-Bera, Gasteizko Gastedi, Hernaniko, Ordiziako, Durangoko, Eibar-ko eta Suitzako talde bat ere, arrasatearrekin batera. Taldeak 7 jokalariz osatuko dira. 7 minutuko bi aldiko partidak jokatu dituzte. Beraz, partida oso bizkorrak izango dira eta ikusgarriak. Txapelketa Atxabalpeko futbol zelaian jokatu da.



FESTA GIROA

Herriko errugbilariek "arrasatearrei kirol erakargarri honen aldaerarik ikusgarriena agian, erakutsi nahian" antolatu dute txapelketa. Hori dela eta, Garagardoaren Lehen

festa ere antolatu dute. Ekainaren 4an hasi (19:00etan) eta goizaldea arte iraungo du. Herriko plazara gerturatzeko diren guztiak Alemaniako edariak eta errekiak dastatzeko aukera izango dute.

Jon del Rio Asturiasera



Jon del Rio, Born Jay taldeko txirrindularia Asturiaseko itzulira abiatuko da gaur bertan, Euskal Herriko afizionatuen selekzioarekin. Gaurtik eta ostirala arte sei euskal ordezkaritza arituko dira han. Igandea arte iraungo du eta Jonek adierazi digunez, "100 km baino gehiago dituzten etapak dira eta lehen mailako mendaterik ez dagoen arren, nahiko aldapsuak dira ibilbidean sartu dizkigutenak".

Urrea, zilarra eta brontzea

Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kirolariak Mendizorroztzan izan ziren asteburuan, Euskal Herriko gazte eta junior mailako txapelketan.

Remi Diosdadok urrezko domina lortu zuen 200 m.etan, Jonathan Perezek pertika jauzian eta Oskar Gavilanek disko jaurtiketan. Fernando

Nogales zilarrezko dominarekin itzuli zen, 1.500 m.ko lasterketan, 4'22ko denbora egin ondoren. Brontzea, Unai Elortza, Arrasateko taldean ari den oñatiarrantzat izan zen jauzi hirukoitzean.

Mari Jose Gil korrikalaria Durangon jokatu zen betaranoen Euskal Herriko txapel-

ketan izan zen. Gil bigarren gelditu zen 1.500 m.ko lasterketan.

Cesar Diez Laredoko maratoian izan zen igandean. Lasterketan zehar 30ºko temperatura izan zuten eta azkenean 3h 6'ko denbora egin zuen. Ezin, beraz, orain dela 10 urteko maratoia hobetu.

Lasaga 3. eta Del Rio 2.

Infantilek eta afizionatuek asteburu ona izan zuten txirrindularitzan. Arrasate Kirolak taldeko txirrindulariak Elgoibarraren izan ziren. Markel Lasagak hirugarren gelditzea lortu zuen berriz. Atzetik, bosgarren tokian, Jon Lete sartu zen eta ondoren Eddy Perez. Asteburu honetan Eibarrera doaz.

Born Jay taldeko afizionatuek bestalde, Sorriara joan ziren larunbatean. Jon del Rio, sasoi dagoela erakutsi zuen berriz ere. Bigarren helmugaratu zen. Jabier Miguel seigarren izan zen. Larunbatean Euskalduna trofeo lasterketa dute Laudion eta Lehendakari trofeo lasterketa Trucion. Igandean, berriz, Ataunera joango dira Euskalduna trofeo lasterketara.

Eskoriatza-Arrasate herri krosa



Igandean Eskoriatza-Arrasate herri krosaren VII aldia jokatu da. Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak antolatuta, 8,5 km.ko ibilbidea izango dute lasterkariek. Irteera eguerdiko 12:00etan izango da, Eskoriatzan.

Lehenengo hirurek garaikurra jasoko dute eta

lehen hamarrek dirusaria. Bestalde, parte hartzaile guztiak elastiko bana jasoko dute.

Izen ematea 700 pta kostako da. Bestalde, Arrasate Eskoriatzaraino autobusa jarriko da; irteera ordua baino ordu erdi lehenago egingo du azken bidaia.

Haurrak finalera

Lehen urteko haur mailako futbolariak Gipuzkoako kopako finalera iritsi dira. Joan den asteburuan 3 eta 0 irabazi zioten Baskoniari, Zumarragako Argixao futbol zelaian jokatutako norgehiagokan. Hori dela eta, larunbatean Eibarraren aurka jokatu dute finala, Eibarko Bikuña futbol zelaian goizeko 10:00etan.

Ohorezko infantilek ere amaitu dute denboraldia. Gurasoen aurka jokatutako partida batekin eman zioten amaiera ligari eta 2 eta 4 irabazi zieten gurasoei, joan den larunbatean.

Mondra futbol taldea lehen mailako errejionalera

2 eta 1. Horrela amaitu zen preferente mailako Mondra taldearen denboraldia. Hori esanda bakarrik, badirudi ondo amaitu zutela, etxean jokatu zuten eta, Trintxerperen aurka. Baina gauzak ez dira horrela. Mondrak maila galdu du eta nahiz eta azkenengo bi partidak irabazi, ez du erremediorik.

Datorren denboraldian errejionaleko lehen mailan arituko da. Hogei bat urte badira Mondrak ez duela maila horretan jokatzeko. Gauzak, ordea, okertu egin zaizkio Atxabalpeko futbol talde nagusiari.

ENTRENATZAILE BERRIA

Jabier Letonaren ordeztu, Juanina Garai izango da Mondraren entrenatzailea datorren denboraldian. Larunbateko



Mondrak 2 Trintxerpek 1, ligako azken partidan.

partidan ez zen Letona futbol zelaira agertu eta Raulek eta Leibak egin zuten entrenatzailearen lana.

Juanina izan zen denboraldi hasieran Mondraren entrenatzailea, baina gauzak okertu zirenean, zuzendaritzak entrenatzailez aldatzea erabaki zuen. Orain, ordea, Garairen aldeko apustua egin du berriz ere zuzendaritzak.

LIGA, ZENBAKIETAN

Mondrak hamar norgehiagoka irabazi ditu guztira 98-99ko ligan. 41 gol lortu ditu eta 53 sartu dizkiote berari. Baina puntutan, 37 baino ez ditu lortu, Bergarak liderrak baino, 45 gutxiago. Bergara hirugarren mailan arituko da hurrengo urtean eta Mondra, berriz, errejionaleko lehen mailan.

Ane eta Eneritz Ordiziako taldean

Ane Lopez de Bergara eta Eneritz Jauregi igerilari arrasatearrak Ordiziako Igeri Taldearekin ari dira aurten. Izan ere, Arrasateko taldea desegin egin zen denboraldia hasi aurretik.

Joan den maiatzaren 9an Bidasoako jaitsieran hartu zuten parte biek. Absolutu mailan ari dira eta Anek errekorra lortu zuen neskatan: zortzi kilometro 1:02:54ko denboran egin zuen. Eneritz bigarren izan zen, Aneren atzetik.

Joan den igandean, bestalde, Donostiako Hiru Hondartzak proban aritu zen Ane. Sailkapen orokorrean hirugarren izan zen arren, neskatan garaipena eskuratu zuen. Ibilbideak 5 km zituen eta Anek adierazi digunez,



Eneritz eta Ane, Bidasoako jaitsieraren ostean, Hondarribian.

“Hondarribikoa baino gogorragoa egin zitzaidan”.

LARUNBATEAN GASTEIZERA

Ordiziako Igeri Taldeak Espainiako Sakonera Handiko I Txapelketa antolatatu

du, Gasteizen. Federaziokoa jokatu da, Gasteizko Klub Nautikoan. Ane eta Eneritz Euskal Herriko selekzioarekin abiatuko dira txapelketa. Zortzi lagunek, lau neska eta lau mutik, osatuko dute selekzioa.

Euskal Herriko eskola arteko finala

Saioa Karate Eskolako zortzi neska-mutiko aritu ziren joan den asteburuan Gasteizen, Eskola Arteko Euskal Herriko finalean. Zortzi karateka abiatu ziren Saioatik eta guztiak kata modalitatean aritu ziren.

Guztira 46 neska hartu zuten parte, tartean Laida Ramos eta Tania Diaz arrasatearrak. Taniak bigarren aldira pasatzea lortu zuen eta azkenean laugarren gelditu zen. Mutiletan, 79 parte hartzaile ziren. Arrasatetik Denis Serrano, Oliver Sanchez, Josu Gonzalez, Jon Rodriguez, Goizeder Caballero eta Ivan Galan. Denis, Josu eta Ivan bigarren aldira pasatu ziren. Azkenean, Ivan Galan bosgarren sailkatu zen.

YLLANA

TALDEA

666



ANTZERKIA

AMAIA ANTZOKIA

Ekainak 5, larunbata, 22:30ean

Prezioa: 1.000 pta (Gazte-txartelarekin: 800 pta)

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA

Kultura Saila

Pedro M^a Axpe / Argentinatik aitaren etxera

Argentinarra jaiotzez eta euskalduna jatorriz. Aita Olandixo baserrian jaioa zuen, Mondragoen. 68 urte-ekin, emaztea hartu eta aitaren jaioterrira etorri da, sustrai bila. Ekainaren 5ean itzuliko dira, hainbeste emozioen ostean, bihotzari atsedenen piskat ematera.

— Zergatik joan zen zure aita hemendik?

— Espainia gerran zegoen mairuekin eta berari soldadutza Melillan egitea tokatu zitzaion. Inor gutxi itzultzen omen zen gerra hartatik. Horregatik, alde egitea erabaki zuen. Bazen Argentinan gizon bat, Meliton Ugalde, beharrezko paperak egiten lagundu ziona. Horrela, bada, hogeitau urte zituela, Frantziatik abiatu zen Argentinara. 1914ko urtarrilaren 14an Buenos Airesera iritsi zen. Ugalde jaunarentzat hasi zen lanean, ganaduekin eta.

— Zer kontatu zizun Arrasateri buruz?

— Berba gutxikoa zen, baina hark esana zen garai hartako Mondragoek ez zuela 3.000 bizilagun baino gehiago izango.

— Non bizi zara zu?

— Treinta de Agosto deritzan 4.500 bizilaguneko

herri batean, Buenos Aires probintzian, hiriburutik 500 bat kilometrora. Abeltzaintza da gure diru iturririk handiena. Hamar herritarretik lau euskaldun jatorrikoak gara. Iaz, gainera, Euskal Etxea sortu genuen, Argentinako Euskal Etxeen Federazioan dagoena.

— Zerk ekarri zaitu hona?

— Nire familia ezagutu nahi nuen. Bi arreba utzi zituen aitak hemen. Bagenuen harramana haien ondorengoekin, gutun bidez eta telefonoz, baina sekulako gogoa nuen behingoz ezagutzeko. Osoegun hunkigarriak pasatzen ari gara. Olandixon ere izan gara. Erabat aldatuta dagoela esan digute.

— Nola aurkitu duzue Arrasate?

— Oso herri indartsua da, industria askorekin. Politara ere bada. Izan ere, inguru hauek benetan ederrak dira. Oso bestelakoak, Pampakoekin alderatuz gero. Apotzaga, esaterako, ederra da.

— Zer iruditu zitzaizun larunbateko ekitaldia?

— Benetan hunkigarria. Ez genuen horrelakorik espero. Oroimen ezin ederragoa daramagu hemendik.



Sustrai bila etorri da Pedro M. Axpe Arrasatera.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

JOSE ANTONIO AZPIAZU (FILOSOFO ETA ANTROPOLOGOA)

“Gaurko Arrasate XVI”

Legazpiarra jaiotzez, Oñatiko Lege-Soziologiako Nazioarteko Erakundearen dihardu lanean azkenengo hamar urteotan. Filofoia eta Antropologia Historikoa ikasi zuen. Baina astia duenean XVI mendea ikertzea atsegin du. Horren ondorio dira Julio Caro Barojak zuzenduta egin zuen tesia, bai eta ondoren argitaratu dituen liburu historikoak. “El acero de Mondragon en la época de Garibay” liburuak argitaratu berri du. Bere esanetan “XVI mendean, arrasatearrak gaurkoak baino modernoagoak ziren”.

— Zer egiten duzu Institutuan?

— Lege Soziologia lantzen dugu, gizarte eta legea lotzen duen ahalegina. Institutu hau aitzindaria da horretan. Hemen dagoen liburutegia munduko garrantzitsuenak da horretan. Lizentziatuek esaterako, masterrak egin ditzakete hemen nahiko merke. Ingelesa jakin behar da, irakasleak atzeritiko datoz eta. Gure argitarapen gehienak ingelesez dira. Ea Eusko Jaurlaritzak euskarazkoak bultzatzen dituen.

— Argitaratu duzun liburua zure kabuz egin duzu?

— Beti bezala. Niretzat askoz ere garrantzitsuagoa da hori, hemengo lana baino. Hemengo, lan profesionala da. Ikerkuntzatik ezin daiteke bizi.

— Kalera begira, non gelditzen dira ikerkuntza horiek?

— Horixe galdetzen dut neuk ere. Gehien bat unibertsitatean eta adituen artean. Jendeak irakurri ahal izateko liburuak egiten ahalegintzen naiz. Gure arbasoen harro egoiteko, honelakoak irakurri behar.

— Liburuan “nekazariak ala industria gizonak izan ote ginen” planteiatzen duzu.

— Nire aspaldiko ustea da. Hstoriak erakutsi nahi du gure arbasoak baserritarrak zirela, kaiku eta arlote hutsak... Bali-teke. Izan ere, nazionalismoa sortu zenean irudi hori zabaldu nahi izan zen. Baina XVIII mendean Azkoitiko Zalduntxoak agertzen dira, Amerikarekin harremanak dituzten merkataritza konpainiak... Eta Garibairen garaian arrasatearrak gaurkoak baino moder-

noagoak zirela ikusten duzu. Mundialak ziren. Baserritarrek ere gehien bat industrian eta merkataritzaren inguruan lan egiten zuten. Baserritik bertatik oso jende gutxi bizi zen. Arrasate ez dute ez Union Cerrajerak ez kooperatibek asmatu. XX mendeko Arrasate XVI mendeko Arrasaten ispatzen da.

— Orduko eta egungo euskaldunak oso bestelakoak gara?


— Egoerak oso bestelakoak dira, baina garai hartako eta egungo egoerak ikusita, orduko eta egungo arrasatearren erantzunak parekatu egin daitezke. Hauek

bezala haiek, erantzun baikorra, tekniko eta aurrerakoa emateko gai izan dira. Gaurko XVI mendeko Arrasateren antza hartzen ari da oraindik ere.

— Kooperatibismoaren abiapuntua XVI mendean dago, beraz, liburuan diozun bezala?

— Hori hausnarke-tarako puntu bat da, ez dago agiritan. Baina historiak erakusten digu baldintza egokietan arrasatearrak gai izan direla

“Uste izatekoa da XVI mendean osteguna txikiteo eguna izaten zela Arrasaten”



"Nikooan ispilatzen da"

erantzun egokiak emateko. Deitu geneak, deitu ADN, deitu izaera bera..., erantzuteko modu apropos eta antzerakoa izan dute. Altzairuaren industria desagertu zenean, Arrasate krisian bizi izan zen bi mendez eta demografikoki ere hiru mendez pasa behar izan ziren XVI mendeko biztanle mailara gerturatzeko. XX mendean egoera oso bestelakoa izan da eta horri heltzen jakin izan dute.

— **Zer metodologia erabiltzen da honelako lan bat egiteko?**

— Tesia egin nuenean, nire lehenengo ikerketa, asmatu egin behar izan nuen metodologia. Barojak esan zidan: zuk datuak jaso, zentzunarekin sailkatu eta puzzlea osatu. Metodologia nork berea egin behar du. Gerora, materiala bilatutakoan, aurrez dakizu zeren bila ari zaren.

— **Non aurkitu duzu dokumentazioa?**

— Udaletxe, Kontzejuko, Tolosako eta Bergarako protokoloetan. Valladoliden ere bai. Han gure historiaren zati handi bat dago.


— **Orduko Arrasateri buruzko anekdotarik?**

— Benakeroak mea ateratzeaz arduratzen ziren eta ostegunean libre izaten zuten. Arrasateko altzairua saldu eta ardoa erosi, berriz, emakumeek egiten zuten. Haiek mandazainei saltzen zieten altzairua eta mandazainek Medina del Campo aldera jotzen zuten. Bueltan Gaztelako edo Errioxako ardo zuria hartu eta hona ekartzen zuten. Horregatik, pentsa liteke osteguna txikiteo eguna izango zela Arrasaten. Sagardoa ez zuten mires ten hainbeste. Ardoa bai.

— **Julio Caro Barojarekin izan zenuen harremana. Nola-koa izan zen?**

— Oso berezia. Nik Lesakako eskolan ematen nituen eskolak. Berako lagun baten bitartez ezagutu nuen eta bere etxera joaten hasi ginen. Hark lagundu zigun transkribapenak ondo irakurtzen.

Oñatira etorri nintzenenean tesia egiten lagunduko ote zidan galdetu nion eta "dudarik gabe" erantzun zidan. Oso gizon ona eta abegikorra zen. Edozertan laguntzeko prest. Historiari dagokionez, nire maixua izan zen.



Mariaren Lagundia Ikastola. Bergara

Goi Mailako Heziketa Zikloak

GIZARTE INTEGRAZIORAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

1999/2000 ikasturtea

Teknikari honek Gizarte Interbentzio sailean egingo du lan. Orokorrean edozein egitura edo erakunde publiko zein pribatutan jardun dezake. Ekintza nagusitzat Giza Interbentzioa izango du.

■ **SARRERA BALDINTZAK:**

Ondorengo ikasketetatik bat izan behar da bukatuta:
LOGSE Batxilergoa 2. maila, REM 2. zikloa, UBI, LH II
20 urte edukita: sarrerako proba bidez

■ **IRAUPENA:**

1.700 ordu, bi ikasturte eta zortzi modulutan banatuta

■ **MODULUAK:**

1. maila (1.100 ordu) eta 2. maila (600 ordu)

IZENA EMATEKO ETA MATRIKULAZIORAKO EPEAK:

Aurre-matrikulazio epea: Ekainaren 1etik 9ra
Matrikulazio epea: uztailearen 1etik 9ra
Idazkaritzako ordutegia: 09:30-13:00
eta 14:30-17:30

Espolonia 1, Bergara
Telefonoak: 943 76 25 40 / 943 76 25 41
Faxa: 943 76 33 31
E-mail: marilaoikastola@clientes.euskaltel.es

Mariaren Lagundia ikastola. EIB Euskal Ikastolen Batzako Kidea

EDERTASUNA ETA OSASUNA: EGUNEROKO ZAINKETAREN ETA NORBERAREN ONGIZATEAREN EMAITZA.

EDERTASUNA: ENERGIA DIAGNOSTIKOA DOAN

Estetika eza aurrez ikusi, borrokatu eta gainditu. Hori da, bere konfiantza Henri Chenot Metodoan jartzen dutenek lortzen duten helburua.

Orain, gainera, **zure energia diagnostikoa dohainik** izango duzu. Zatoz Lirain Zentrura eta zure morfologia ezagutu eta desoreka estetikoaren arrazoia aurkituko dugu. Lirain Zentruan kalitate eta profesionaltasun handiko tratamenduak aurkituko dituzu:

- Drenaje linfatikoa
- Bainuterapia
- Elektroestimulazioa
- Usaintzerapia
- Tratamendu pertsonalizatuak:
Zelulitia, gorputz, bular eta gluteoaren
gogortzea, aurpegi tratamenduak, aknea,
zimurrak, estresa, zahartzearen aurkakoa.

ESTETIKA-MEDIKUA: ELIKADURA OREKATUA

Elikadura egokia izatea ezinbestekoa da osasunean eta edertasunean jarritako helburuak lortzeko. Lirain Zentruak zure gorputza aztertu eta tratamendu pertsonalizatua jarriko dizun estetika-mediku espezializatua eskaintzen dizu.

- Dietak - Mesoterapia
- Barizen tratamendua
- Liposaketak
- etab.

OSASUNA: SARTU KIROLEAN

Kirola egiten hastean, egoera fisikoa hobetu nahi izaten duzu. Honek gorputza zaintzen eta maitatzen erakusten dizu. Hasiera hau errazteko, Lirain Zentruak merkatuko ekintzarik berrienak eta entrenigarrienak eskaintzen dizkizu, monitore profesionalen bitartez:

- Aerobic-a
- Dutxa eskoziarra
- Step
- Mantenimendu gimnasia
- Lurrun bainuak
- Masajeak
- Areto dantzak
- Power Dunbell (Muskulazioa)



ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Bixente Ferrer kalea • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 17

(Sarrera: Mondragon Hotelaren ondoan)

UDAKO ESKAINTZAK
Estetika

Zutikako eta etzandako
solariumak, dutxa eta guzti
10 saio + 1 doan = 9.000 pta

Gimnasioa

Ekainean eta uztailean
gimnasioko ekintzak egiteko
ez dago bazkide egin beharrik!

JOSE LUIS VILLENA ETA BENITO GARZIA

“Elkartearen urteurrenean estreinatuko dugu La Alborea”

Benito Garzia eta Jose Luis Villena (Txupa) “Coros y danzas Corazón de Encina” taldeko partaide dira. Jose Luisek gitarra jotzen du eta Benitok abestu, baina ez dira taldeko partaide bakarrak. Horretaz gain “Tarama” izeneko rumba taldean ere badihardute, beste hiru lagunekin. Orintsu egin duten kultura astean hainbat saio eskaini dituzte.

— Noiz sortu ziren zuen musika taldeak?

— “Coros y danzas Corazón de Encina” 1991n. Emakumezkoen bederatzi ahots ditugu, eta bost gizonzkoetan. Taldearen barnean musikaz arduratzen den “La Rondalla” taldean hiru gitarra espainol, akustiko bat eta akordeoia daude. Dantza, berriz, 16 bat emakumezko eta mutil batek egiten dute, 21 urtetik beherakoak guztiak. “Tarama”, berriz, 1995ean sortu zen.

— Orain koru eta dantza taldean obra bat gertatzen ari zarete.

— Bai, “La Alborea”. Kultura astean estreinatu nahi genuen, baina ezin izan dugu eta elkartearen urteurrenerako utzi dugu. Abesti ugari ditu eta Extremadurako ezkontzetako antzinako ohiturei buruzkoa da.

— Zer dela eta animatu zineten taldeak sortzera?

— Egia esan, hemen euskal kulturaren alde asko borrokatu da. Hemendik ikasi nuen nik kulturarik bariko herri batek ez duela nortasunik. Eta honelaxe erabaki genuen lanean hastea. 90. urtea zen hura.

— Asko entseiatzen duzue?

— Bai, astean birritan edo hirutan.



— Nola hasi zineten “Tarama” rumba taldearekin?

— Gure lagun batek, “Aceitunilla”-k, hor zehar gitarra zahar batekin abesteko zaletasun handia zuen eta poliki-poliki geu ere berarekin joaten hasi eta azkenean taldea osatu genuen. Bost gara orain, hiru ahots, bi gitarra eta tinbalak. Begira, gazteenak gainera 12 urte bakarrik ditu.

— Nola aukeratzen duzue zer abestu?

— Edozein lekutatik hartzen dugu: Manolo Escobarrenak, Bourbon 4renak... Geureak ere egiten ditugu. Koruan dabilen batek asmatu eta geuk jartzen dugu musika.

— Etorkizunera begira, zeintzuk dira zuen asmoak?

— Hobetu egin behar dugu. Izan ere, EAEn, adibidez, gu bezalako hamasei elkarte daude eta lehia handia dago, denok irabazi nahi ditugu eta, lehiaketak. Dena den, Arrasateko taldeari beldur handia digute...

aste gazte

■ HEZKUNTZA

• Erdi eta Goi mailako Ziklo-
etarako izen emateko epea ekainaren 1etik 9ra bitartean luza-
tzen da. Ikasketen eskaintza
bulegoan daukagu, zer dagoen
ikusitako nahiz gero.

■ LANA

• Barakaldoko Udalerako,
informatika teknikaria behar da.
Epea: ekainak 12.
• Kirol koordinatzaile pos-
tua bete nahi da Huarteko Uda-
lean. Epea: ekainak 20.
• Eusko Legebiltzarrerako
legelariak behar dira. Epea:
ekainak 21.

■ IKASTAROAK

• Braille: idazteko eta ira-
kurtzeko ikastaroa, Itxarope-
nak antolatua. Gasteizen egin-
go da, hiru txandatan.
• Adierazpen Eskolak (EDE
Fundazioak) Nazioarteko adie-
razpen eta sormen 11. ikasta-
roak antolatu ditu: askatu zure
ahotsa, antzerkia DBHn, gor-
putzaren musika, adierazpen
dramatikoa haur eta lehen hez-
kuntzan, teknika sortzaileak
paperarekin, ipuin kontaketa...

■ AUZOLANDEGIAK

• Kutxak eraturik, 16-30
urte arteko gipuzkoarrei zuden-
duta, Lezetxikin, Irunen, Atau-
nen eta Zestoan, uztailan nahiz
abuztuan egingo dira.

■ LEHIAKETAK

• Bidasoako Nazioarteko
Film Laburren II. Zinemaldia.
Lanak 1998ko urtarrilaren
laren ondoren eginikoak, gai
librean eta 30 minutu baino
laburragoak izan beharko dute.
Epea: Ekainak 15.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

“Kulturarik gabe herri batek ez duela nortasunik ikasi genuen”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxea salgai Nafarroan, Logroño-tik 18 kolimetroa. 2.500.000 pta inguru. Tel.: 943 79 49 42.

3. Errentan emateko

- Apartamentua alokagai Benidor-men. Tel.: 943 79 54 48.

- Sei pertsonarentzako apartamentua alokagai Laredon, igogailu eta guzti. Hamabostaldia 80.000 pta. Tel.: 943 76 44 34.

- Apartamentua alokagai Peñiskolan, uztailera lehen hamabostaldian eta abuztuko bigarrenean. Hondartzatik eta kirol esparrutik oso gertu. Tel.: 943 79 57 31.

4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza osatzeko lagun euskaldun bat behar da. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 79 93 03.

- Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. 80.000 pta ordaintzeko prest nago, egoera onean baldin badago behintzat. Tel.: 610 46 78 92.

- Bi ikaslek etxebizitza alokatuko genuke hurrengo ikasturterako. Prest geundeke beste batzuekin ere etxebizitza osatzeko. Tel.: 617 26 32 41 (gauetz) edo 943 67 05 48 (asteburuetan). Josune.

- Lau neskek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 64 28 37.

- 4 edo 5 logelako etxebizitza alokatuko genuke. Tel.: 943 79 84 40.

5. Etxeak osatzeko

- Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Arrasate erdialdean. 943 79 59 60. Ramon.

- Neska bat behar da gela bat alokatzeko ekainaren 15etik irailaren 15era, San Andresen. Tel.: 943 79 72 99. Maria, 18:00 - 19:30.

GARAJEAK

7. Saldu

- Garaje itxia salgai Iturripe eta Eskola Politeknikotik gertu. 20 m². Tel.: 943 79 34 70.

9. Errentan emateko

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Garaje itxia alokatzen da Musakola aldean. Tel.: 943 77 16 03.

- San Andres auzoan garaje lekuak salgai. Tel.: 608 77 07 86.

10. Errentan hartzeko

- Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

- Biltegirako edo autoa gordetzeko 50 m²ko lonja alokagai edo salgai. Tel.: 943 79 45 58.

14. Errentan emateko

- Bi toki alokatzeko, 120 eta 130 m²koak, batera edo bakarka, San Andreseko industria pabilioietan. Tel.: 608 77 07 86.

- Goxoki denda bat alokatzen da Kontzeziño kalean. Tel.: 943 77 10 97.. 21:00etik aurrera deitu.

- 140 m²ko tokia alokatzen da. Tel.: 943 79 34 23. 21:00etik aurrera.

- Lokal komertziala alokatzen da Arrasateko erdigunean. Tel.: 600 65 68 15 edo 630 55 16 29.

15. Errentan hartzeko

- Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

LANA

17. Eskaintza

- Zazpi urteko esperientzia duen jate-txe zerbitzaria lana egiteko prest. Tel.: 943 77 08 13. Carmen.

- Taberman lan egingo nuke. Tel.: 943 76 46 07.

- Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

- Emakume euskalduna prest umeak zaindu, etxekolanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

- Emakume arduratsua umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 54 48.

- Emakumea garbiketak eta etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 78 36. Mari Carmen.

18. Eskaerak

- Sukalde laguntzailea edo sukaldean esperientzia duen pertsona behar da, jate-txe batean lan egiteko. Tel.: 943 71 64 70.

- Zerbitzaria behar da taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 943 79 61 64 telefonora.

- Esperientzia duen ile apaintzailea behar du. Tel.: 943 77 16 31.

- Zerbitzaria behar da Arrasateko taberna batean. Tel.: 943 79 22 15.

- Neska edo mutila behar da aste-buru gauetan jangelan zerbitzeko. Tel.: 943 79 68 57.

- Tabernaria behar da Oñatiko taberna batean aritzeko. Tel.: 943 78 06 59.

- Neska gazte bat behar da haurrak zaintzeko, ekainaren 15etik uztailaren 30era bitartean. Goizez, 09:00etatik 13:00etara. Tel.: 943 79 82 73. Maribel, iluntzetan.

- Zerbitzariak behar dira jate-txean aritzeko. Tel.: 943 78 35 26.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Lehen eta bigarren heziketarako eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 83 46.

- Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 943 79 01 06.

21. Eskaerak

- ESoko 1. mailako eskola partikularrak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 60 01.

- Mekanografiako eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 25 10. Igor.

- Batxilergoko 2. mailako matematika eta teknologia industrial elektriko eskola partikularrak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 34 53.

MOTORRA

23. Saldu

- Motorra salgai. Suzuki GSX 750R. Tel.: 943 79 70 96. Felix.

- Super 5 GTSa salgai, estra eta guzti. Tel.: 649 06 94 71.

- Renault Espace 2.1 TD salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 26 16 / 943 79 68 31 (Urtzi).

- Ford Escort RS turbo salgai. Matrikula SS-AG. Tel.: 943 72 59 90. Gaeuz deitu.

- Honda Shadow 1100 motorra salgai. Oso egoera onean, estra askorekin. Osagai orijinalak oparitan. 1.180.000 pta. Tel.: 943 00 81 15 (Jabi).

- Volkswagen Golf GTI, SS-AF matrikula, salgai. Tel.: 943 77 04 87 / 670 40 41 20.

- Opel Vectra 2. 0l GT 16V saltzen dut (93ko modeloa), SS-AN. Tel.: 943 79 63 67.

- Audi 90 2 2 Quatro salgai, SS-AH matrikuladuna. Oso egoera onean, estra guztiek. Tel.: 608 77 18 57.

- Karabana salgai, Roller 390. Tel.: 943 77 05 22. Iluntzean deitu.

- 1998ko Derby Senda SM bat salgai, 200.000 pta. Egoera onean. Tel.: 943 79 58 45. Raul.

- Ford Sierra 2.000 CL, SS-Z salgai. Tel.: 943 79 95 01.

- Vespino NLX ia berria salgai. Tel.: 943 79 60 81. Jose Mari.

- Opel Corsa salgai. 80.000 km. SS-V. Egoera onean. Tel.: 943 58 50 17.

DENETARIK

26. Saldu

- Pentax Z-1 argazki kamera, 28-80 objektiboduna, eta FTZ-400 flasha saltzen ditut. Oso gutxitan erabilia. Tel.: 943 79 21 35.

- Euskal artzai zakurra, arra, salgai. Tel.: 943 78 34 79.

- Tamaina handiko Conver-13 bat salgai, 8 bat urtekoa, ongi mantendua eta prezio onean. Tel.: 943 79 22 28.

- Yamaha-Clavinova (CLP 360) pianoa salgai. Erabiltzeke dago. Tel.: 943 75 11 70.

- Super Nintendo bat salgai, sei joko, aginte eta klabe eta guzti (konektoreak). Tel.: 943 79 92 23. Josu, gaeuz.

27. Erosi

- Bigarren eskuko pisu bat (pizatzeak) erosiko nuke. Tel.: 943 79 86 28.

29. Eman

- Lau katakume oparitzeko. Nahi duenak, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

30. Hartu

- Panpinak behar dira lehenbailehen arte lan bat egiteko. Egoera onean bueltatuko dira. Deitu asteleheneretik ostegunera bitartean 670 30 02 69 telefonora. Maite.

31. Galdu

- Maiatzaren 2an, igandean, eskuturreko bat galdu nuen San Andre setik Altamirara bidean. Topatu duenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 29 24 telefonora.

- Graduatutako betaurrekoak galdu dira Musakola auzoan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 53 041 telefonora. Sarituko da.

- Neskatala bati urrezko eraztuna galdu zaio. Eraztunak 2 harri txiki ditu eta esparadrapoa darama. Topatu baduzu, deitu mesedez 943 79 84 87 telefonora iluntze aldera.

- Betaurreko graduatuak galdu dira Uribarrin. Tel.: 943 79 95 24. Karmen.

- Behealdeko ordezeko haginak aurkitu ditut Zaldibarko 7. zenbakian. Tel.: 943 77 11 68.

- Umearen bota zuria galdu nuen joan den ostegunean, hilaren 20an. Munar, Arrasate pasealekua eta erdialdea bitartean. Tel.: 943 79 69 68.

32. Aurkitu

- Uribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.

- Orain dela hilabete lepoko zapi bat aurkitu nuen, Uribarri etorbidean. Tel.: 943 79 34 61.

- Betaurreko batzuk agertu dira Larra gain kaleko garajejan. Tel.: 943 79 86 28.

HARREMANAK

35. Kontaktuak

- Biolin jole eta zehar flauta jole bat behar dugu musika talde batean jotzeko. Tel.: 943 79 95 76. Esteban.

...ARGIA JOAN EGIN ZEN ETA

JOATEZ BAT, GARRASI IKARAGARRI BAT

ENTZUN ZEN GAZTELO OGAN, ESKAILERETARA

MARKE ERAS EGTEN HASE EREN ZEN TXINGITTS BATE ERASIAN

PROGRESIBO BATEAN ARI ZIRELAN BERTAN BERTAN BERTAN

PROGRESIBO BATEAN ARI ZIRELAN BERTAN BERTAN BERTAN

PROGRESIBO BATEAN ARI ZIRELAN BERTAN BERTAN BERTAN

PROGRESIBO BATEAN ARI ZIRELAN BERTAN BERTAN BERTAN

lente
PROGRESIBORIK
onenak
VARILUX®
ESSILOR lente bat

goza ezazu
egokitzapen
BERMATUAZ

3 hilabetean
ordaindu
ERREKARGURIK
GABE



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - **BERGARA**
Tel. 943 76 15 75

J. Carlos Guerra, 1 - **ARRASATE**
Tel. 943 79 29 95

J. M. Barandiaran Enp - **ORDIZIA**
Tel. 943 88 99 88



EGUZKITARAKO
Belaurrekoa
3.500 pla-tik aurrera.



GRADUATUTAKO
EGUZKITARAKO
Belaurrekoa
8.900 pla-tik aurrera.



Belaurreko osoa, graduatua
8.900 pla-tik aurrera.



VOLKSWAGEN LUPO
BATEN ZOZKETA

5.000 PTAko EROSKETA BAKOITZEKO TXARTEL BAT

Udalekuak 99 ARRASATEN

Udalekuak auzoan:

San Andres
Erguin
Musakola
Erdialdea
Uribe auzoa
Santamaina



UDALEKUAK HERRIAN

(6-12 urte)
uztailean,
goiz eta arratsaldez.

baietz arra sartu?



BILIN-BOLOKA

96.urtean jaiotakoak.
Uztailean,
goizez edo arratsaldez.



99

BABYLEKUAK

(3-5 urte)
uztailean,
goizez edo arratsaldez.

99ko Udaldia

Udalekuak 99 KANPOAN

AZKAR IBILI, PLAZA MUGATUAK

Berri gehiagorako deitu
943 79 54 46 edo
943 77 17 39 telefonoetara

GARAIOn
(10-12 urte)
Uztailaren 7tik 16ra.

CATALUNYAn
(14-16 urte)
Uztailaren 16tik 25era.

NAFARROAN
Beintza-Labaien
(12-14 urte)
Uztailaren 8tik 18ra.

TXATXILIPURDI



Saio bereziak hauteskunde inguruan

Hauteskundeak direla eta, programazio berezia eskainiko du ATBk datorren astean. Hiru programa mota egingo dira: elkarriketak, mahai ingurua eta bozketa eguneko berezia.

ELKARRIZKETAK

Astelehenetik hasita, egunero elkarriketak egingo dira Arrasateko alkategaiekin. PPkoa izan

erredakzio buruak egingo ditu.

Joseba Ugalde (EB) astelehenean; asteartean Gregorio Atxutegi (PSE-EE), Paco Garciaren orde; asteazkenean Xabier Zubizarreta (EH); eta ostegunean Jose Mari Loiti (EAJ-EA).

Elkarrizketa guztiak gaueko 21:00etan izango dira eta Joxe Aranzabal Arkoko

erredakzio buruak egingo ditu.

MAHAI INGURUA

Ostiralean, hilak 4, mahai ingurua egingo da, goian aipatutako hautagaiekin. Hau ere ordu berean izango da eta Joxe Aranzabalek zuzenduko du.

HAUTESKUNDEAK 99

Ekainaren 13an, berriz, boz-

keta egunean, Hauteskundeak 99 saioa egingo da, iluntzean hasita. Maria Agirre kazetari atxabaltarrak aurkeztuko du eta emaitzak etorri ahala jakinaraziko zaizkizue, beharrezko diren azalpen eta guzti.

Aste berezia, bada, ATBk prestatu duena hauteskundeak direla eta.

Hautagaiak ATBn




Joseba Ugalde

(Ezker Batua)
Astelehenean



Gregorio Atxutegi

(PSE-EE)
Asteartean



Xabier Zubizarreta

(EH)
Asteazkenean



Jose Mari Loiti

(EAJ-EA)
Ostegunean



Maria Agirrek aurkeztuko du bozketa eguneko saio berezia.

■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 5

13:30 Programarik interesgarrien errepika:
Jolasplast, Munduari bueltaka, Aurrez Aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebete.

IGANDEA, 6

13:30 Programarik interesgarrien errepika:
Jolasplast, Munduari bueltaka, Aurrez Aurre, Kaleidoskopia, Soinuz Blai eta Astebete.

ASTELEHENA, 7

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Astebete errepika.

20:00/20:30 Berriak.

21:00 Ni alkate. Elkarrizketa Joseba Ugalde IU-EBko hautagaiarekin. Joxe Aranzabalek zuzenduko du.

ASTEARTEA, 8

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Ni alkate. Joseba Ugalde IU-EB (errepika).

19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen saioa.

20:00/20:30 Berriak.

21:00 Ni alkate. Gregorio Atxutegi PSE-EEko hautagaia.

ASTEAZKENA, 9

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Ni alkate. Gregorio Atxutegi PSE-EE(errepika).

20:00/20:30 Berriak.

21:00 Ni alkate. Xabier Zubizarreta EHko hautagaia.

OSTEGUNA, 10

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Ni alkate. Xabier Zubizarreta EH (errepika).

20:00/20:30 Berriak.

21:00 Ni alkate. Jose Mari Loiti EAJ-EAko hautagaia.

22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek aurkeztu duen musika saioa.

OSTIRALA, 11

13:30 Albiste aurrerapena.

13:35 Ni alkate. Jose Mari Loiti EAJ-EA (errepika).

20:00/20:30 Berriak.

21:00 Mahai ingurua Arrasateko alkategai guztiarekin. Joxe Aranzabalek zuzenduko du.

22:00 Soinuz Blai. Iban Gonzalezek aurkezturiko musika saioa.



Mexikartxapel-
dun hauek,
presto-presto
jarri ziren
1934. urtean
argazki hau ateratzeko. Orduan
ohitura zen lagun arteko musika
taldeak eratzea. Banaka-banaka
elkartzen ziren eta batek gitarra
atera, besteak infernuko hauspoa
eta sekulako giroa eta umorea
sortarazten zuten jendearen arte-
an. Berriemailearen iritziz, lehen
jaiak dotoreagoak ziren, jendeak
gehiago parte hartzen baitzuen egi-
ten zen guztietan.

Ondo hornituta joaten ziren
“lanera” gazte hauek, izan ere,
parrandak, ardoa bukatu arte irau-
ten zuten.

Argazkian, Garibairen etxearen
urrealdean daude, garai batean
Telefonica egon zen lekuan, Bite-
ri Eskolen ondoan, hain zuzen ere.

Jaietan hain ezagunak izaten
diren dekoratu artifizial horieta-
ko bat erabili zuten argazkirako.
Beraz, San Juanak edo izango ziren
orduan.

Zutik daudenak Leandro Iba-
ñez de Opakua “Txomin Txiki”
eta Felipe Vitoria dira. Makurtu-
ta daudenak, oster, Jose Luis
Urrutia eta ezezaguna zaigun bes-
te lagun bat.

*Argazkia: Arantza Alonso
Berriematea: Julio Galarta*

ERRENTA ADIERAZPENA 98


Informatu. Aukerak aztertu.

Dena profesionalen esku.

Denboraz eta paper barik.

 **Zenbaki**

Basabe Industrialdea, C Pab. • ARETXABAETA • Tel.: 943 - 71 21 12 • Faxa: 943 - 71 22 68



*Aldez aurretik
deitu !*

TELEMATIKA:

aitorpen arrunta kobratzeko modurik azkarrena.





Xabier Zubizarreta



Eugenio Iturriz



Amaia Gabilondo



Josepa Arregi



Iño Gelpiokoro



Uztune Urrizalki



Juan Luis Arexoleleiba



Juan R. Garai



Ramon Akauz



Haritz Azkarraga



Larratiz Trojaola



Juan Jose Saenz

haize berriak



bozkatu



Euskal Herriarrok



Mikel Beñita



Iker Zaitegi



Javier Ibañez



M^o Pilar Erdozia



Juan Corral



Jose B. Alonso



Anthon Elorza



Pedro Marchan



Idoia Jauregiarriburu



handiak edo txikiak,
ideia onak
dira irauten dutenak



MECA TAILERRAK

ARRASATE Tel.: 943 71 24 72 • BERGARA Tel.: 943 76 40 68



RENAULT